

KOIUNTURAZ

68. zkia. – 3. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2009KO BIGARREN HIRUHILEKOAN.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	20
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak	30
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	38
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	44
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	44
EAErako aurreikuspenak epe laburrean	53

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2009ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak urte hasieran izan zuen BPGren beherakada areagotu zuen eta %-3,6ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Eraitza hori inguruneke herrialdeen multzoak eta espainiar ekonomiak jaso dutena baino zertxobait hobea da, baina agerian uzten du EAEko ekonomiak gainontzeko herrialde garatuek egin duten ibilbide berari jarraitzen diola, apur bat beranduago bada ere. Bereziki azpimarragarria da barne eskariaren jaitsiera, hala kontsumoaren atalean nola, batez ere, kapital eraketa gordinarenean. Hala ere, ahultasun horren ondorioz, inportazioen bolumena oso bizkor murriztu da eta kanpo saldoak hobera egin du. Bilakaera horri esker, kanpo saldoak 1,2 puntutan konpentsatu du barne eskariaren beherakada.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Europar Batasuna 27	2,9	0,9	1,8	0,6	-1,7	-4,8	-4,9
- EAE	4,1	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6
- Espainia	3,7	1,2	1,7	0,5	-1,2	-3,2	-4,2
- Alemania	2,5	1,3	2,0	0,8	-1,8	-6,7	-5,9
- Frantzia	2,2	0,8	1,0	0,1	-1,7	-3,5	-2,8
- Italia	1,5	-1,0	-0,3	-1,3	-2,9	-6,0	-6,0
- Erresuma Batua	3,0	0,7	1,8	0,3	-2,0	-5,0	-5,5
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,0	1,1	1,6	0,0	-1,9	-3,3	-3,8
Japonia	2,4	-0,7	0,6	-0,3	-4,5	-8,4	-7,2
Txina	13,0	9,0	10,1	9,0	6,8	6,1	7,9
India	9,3	7,3	7,9	7,6	5,3	5,8	6,1
Errusia	8,1	6,2	7,8	6,2	1,1	-9,5	-10,9
Brasil	5,7	5,1	6,1	6,8	1,3	-1,8	-1,2

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.


Aurtengo bigarren hiruhilekoaz argitaratu den ekonomia argibideak kontuan hartuta, munduko ekonomiak urteko lehen hiruhilabetekoa baino urte arteko jaitsiera zertxobait leunagoa jaso duela ematen du. Zehazkiago adierazita, garatutako ekonomien multzoak ez du asko aldatu 2009. urtearen hasierako eraitza, zeren eta Amerikako Estatu Batuen (AEB) jaitsiera handiagoa Japoniako beherakada apalagoak konpentsatu baitu. Europar Batasunak, oro har,

lehen hiruhilabeteko beherakada baino hamarren bakar bat gehiago jaso du eta horrek pentsarazten du azken bi urtean izan duen moteltzeko joera bizia galgatzeko bidean dagoela.

Beraz, munduko ekonomiaren hobekuntza garapen bidean dauden herrialdeen bultzada handiagoaren ondorioa da, bereziki Txinan eta Indian gertatutakoa, aurreko bi hiruhilekoetan jasotakoak baino hazkunde tasa handiagoak lortu dituztelako. Eskura dagoen informaziotik, oraindik nahiko ez izan arren, ondorioztatzen da Asiako bizitasun horrek nazioarteko merkataritza suspertzeko balio izan duela, Japonia eta Alemania bezalako herrialde esportatzaileen mesederako, urte hasierakoak baino jaitsiera txikiagoak izan dituztelako. Garapen bidean dauden eta beren lehengaien salmentari lotuago dauden beste herrialde batzuek (Errusia tartean) beherakada garrantzitsuak izan dituzte berriro.

Munduko ekonomia. Bilakaera eta 2009rako aurreikuspenak

1. irudia



Iturria: The Economist (bilakaera) eta NDF (aurreikuspenak).


Europari dagokionez, bigarren hiruhilekoan, oro har, lehen hiruhileko emaitza ia bera (%-4,9) jaso bazuen eta egonkortasuneko irudia eskaini zuen arren, eremu horretako herrialde nagusien artean bi portaera kontrajarri hauteman dira. Alde batetik, Alemaniak eta Frantziak zortzi hamarren inguru hobetu zuten emaitza, beren ekonomian nolabaiteko susperraldia, kanpo arloaren bizkortzeagatik, gertatu dela iradokiz. Beste aldetik, Erresuma Batuak eta Espainiak, higiezinaren krisia gehien nozitu duten herrialdeetatik bi direlarik –Erresuma Batuko ekonomian, gainera, finantza arloak pisu garrantzitsua dauka- jaitsiera areagotu dute.

Espainiak %4,2ko urte arteko jaitsiera jaso du, aurreko emaitza baino puntu oso bat beherago, oraindik Europar Batasunaren emaitza (%-4,9) baino zertxobait hobeto kokatu den arren. Kanpo arloaren portaerak justifikatzen du bi lurraldeen arteko alderik nabarmena. Hain zuzen ere, kanpo arloak Espainiako barne produktu gordinari egin dion ekarpen positiboa 3,1 puntukoa izan da, INEren datuen arabera, baina Eurostatek sei hamarreneko ekarpen negatiboa estimatu du Europar Batasun osorako. Beraz, Espainian, kanpo saldoaren defizita zuzentzen ari da, inportazioak esportazioak baino gehiago murriztu direlako. Aitzitik, Europan esportazioen jaitsiera handiagoak ekonomia galgatu du.


Munduko merkataritzaren eta interes tasen bilakaera

2. irudia

Nazioarteko merkataritza indizea: 2005eko I = 100



Eragiketa berrietarako interes tasa: etxebizitza



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea eta Espainiako Bankua.

Bi lurralde horien arteko beste diferentzia nabarmenak barne eskariaren banaketan aurkitzen dira, zeren eta kapital eraketa gordinak portaera negatiboagoa baitu Espainian Europako batez bestean baino, eta ez bakarrik eraikuntzan eginiko inbertsioan, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa ere gehiago jaitsi baita Espainian Europako Batasunean baino (hurrenez hurren, %-28,9 eta %-11,6). Familien kontsumoak narriadura handia (%-5,9) izan du Espainian, baina Europan jaitsiera leunagoa izan da (%-1,7). Era berean, arlo publikoaren papera ezberdina izaten ari da: %5,1 Espainian eta %1,2 Europan.


Inguruneko eszenategia hori izanda, pentsatzekoa zen EAEko ekonomiak beste ekonomia esportatzaileena bezalako portaera erakutsi zezakeela, beraiekin harreman estua duelako. Hala ere, Eustaten datuek adierazten dute gehiago hurbildu dela espainiar eredura, oraindik bere

merkatu behinena baita, eta, horren ondorioz, bigarren hiruhilekoan ekoizteko jarduerak erritmoa galtzen jarraitu zuen. Hain zuzen ere, EAEko barne produktu gordinaren aldakuntza tasa $\% -3,6$ izan zen, Eustaten hiruhilabeteko seriean (1995etik gaur egun arte biltzen ditu datuak) eta beharbada laurogeita hamarretako hasieran ere aurrekaririk ez duen balioa baita. Beraz, lehen hiruhilabetea baino puntu luze bat gehiago jaitsi da hazkunde tasa. Ekarpenen terminoetan, kanpo saldoak 1,2 puntu eman ditu eta barne eskariak, ordea, 4,8 puntu kendu dizkio BPGri.


EAEko ekonomia. BPGren hiruhilabeteko hazkunde eta ekarpenak

3. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eskariaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da kapital eraketa gordinaren ahultasuna, $\%9,1$ murriztu baita. Halaber, familien kontsumoak ere krisiaren eragina pairatzen du, $\%4,6$ ko beherakada jasota. Tasa hori enpleguaren galera ($\%4,0$) baino zertxobait handiagoa da eta horrek pentsarazten du familien portaera aldaketa ari dela gertatzen, orain aurrezteko joera garbiagoa erakusten dutelako, etorkizunaren ziurgabetasunaren ondorioz. Kontsumo publikoak, berriz, ezin izan dio aurreko erritmo biziari eutsi eta $\%3,7$ ra moteldu da. Espainiako ekonomiarentzat adierazi den bezala, Euskadin inportazioen murrizketa esportazioena baino zertxobait biziagoa izan da, biak termino errealean neurtuta ($\% -17,0$ eta $\% -16,4$, hurrenez hurren).

EAEko ekoizpen arloaren narriadura orokorra da, salbuespen bakarra lehen arloa delarik. Industriak balio erantsiaren galera $\% -10,0$ ra areagotu du. Bilakaera hori IPIk bigarren

hiruhilekoan izan zuen beherakada bortitzak (%25aren ingurukoa) iragarria zuen. Bazirudien eraikuntzak hondoa aurreko hiruhilekoan joa zuela, baina Eustatek egin berri duen datuen eguneratzearen ondorioz arlo horren bilakaera aldatu da, beherakada %-5,2ra handituz. Azkenik, zerbitzuak (%-0,5) tasa negatiboen eremuan sartu dira dagoeneko, nahiz eta administrazioari lotutako zerbitzuek merkataritzako zerbitzuen balio erantsiaren galera neurri batean konpentsatu duten.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6
Enplegua	2,8	1,0	1,9	0,6	-0,6	-2,9	-4,0
Ekoizkortasun irabaziak	1,4	0,9	0,4	1,3	0,9	0,4	0,4
Langabezia tasa	3,3	3,8	3,5	3,5	4,6	7,7	7,8
Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,5	4,8	2,8	0,9	0,0

Iturria: Eustat eta INE.

Krisiak enpleguan izan duen eraginaren isla, 41.000 lanpostu baino gehiago galdu dira azken hamabi hilabeteetan, hau da, %4,0 urte arteko aldakuntza tasan. Horrek adierazten du ekoizkortasun irabazi txiki bat lortu dela, lau hamarren ingurukoa. Eraginkortasunean lortu den hobekuntza hori nahiko apala da, bereziki kontuan hartzen bada krisi garai batean eskuratu dela, baina iradokitzen du enpresek langileen kontratuei eusteko apustua, ahal den bitartean, egin dutela. Hori horrela izanda, langabezia tasa ia ez da igo urteko lehen hiruhilabetearen aldean eta %7,8an kokatu da, Eustaten arabera. Azkenik, eskariaren ahultasunak eta lehengaien merkatzeak prezioen igoerak gutxitzen jarraitu dute, bigarren hiruhilekoan aldaketarik ez baitzuten jaso, baina azken hilabeteetan dagoeneko hasi dira urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasotzen.

Datozen hiruhilekoei begira, ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakundeek BPGren jaitsierak garatutako eremuetan leunduko direla iragarri dute. Izan ere, hainbat ekonomia eremu eta herrialdetarako hasi dira goranzko berrikusketa txikiak argitaratzen. Hala eta guztiz ere, susperraldi bizkorrik ez da espero eta denbora beharko da krisian zehar agertu diren desorekak gainditzeko.

Eszenategi horretan, eta kontuan hartuta Eustatek argitaratu dituen azken datuak eta nazioarteko aurreikuspenen eguneraketak, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak beherantz berrikusi ditu 2009rako aurreikuspena, orain %-2,9an kokatzeko, urteko batez bestean. 2010. urterako, estimazioak %-0,8an kokatzen du jaitsiera, aurreko aurreikuspenaren aldean hamarren bakar bat aldatu delarik. Beraz, aurreko buletinetan eskaini zen susperraldi luzeko irudiak bere horretan jarraitzen du. Hiruhilabetekako ikuspegi batean, atzeraldiaren une baxuena aurtengo bigarren hiruhilekoan gertatu zela iradokitzen da eta datozen datuak, oraindik negatiboak izango diren arren, hobeak izango direla.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2009		2010			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG errealak	-2,9	-0,8	-3,0	-2,4	-1,7	-1,1	-0,7	-0,1
BPGren deflatoarea	1,0	1,9	1,3	1,8	1,8	1,9	1,9	1,9
Enplegua	-3,3	-1,9	-3,4	-2,9	-2,5	-2,1	-1,8	-1,0
Langabezia tasa	8,1	9,3	8,1	8,6	9,0	9,2	9,4	9,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Barne eskariaren bi osagai nagusiek tasa negatiboak jasoko dituzte erreferentziako epealdi osoan. Kontsumo pribatuak gero eta jaitsiera txikiagoak jasoko ditu familiek konfiantza berreskuratuko duten heinean eta enpleguaren galera leunduko den neurrian. Kapital eraketa gordinak denbora gehiago beharko du doiketa lortzeko, kontuan hartuta gaur egun ekoizteko ahalmenaren erabilera baxu samarra dela. Kontsumo publikoak gero eta bultzada txikiagoak emango dio ekonomiari, diru bilketa oso bizkor murrizten ari delako. Zorpetzeko mugek ere ekimen publiko handiago bat eragotziko dute.

Ekoizteko arloen ikuspegitik, industriak urteko lehen erdian izan duen beherakada sakona hiruhilekoz hiruhileko zuzenduko du, inguruneke merkatuen susperraldiak baldintzatutako erritmo batean. Eraikuntzak oso gutxi leunduko ditu bere jaitsiera garrantzitsuak, etxegintzak oso ahul segituko duelako eta arlo publikoak obra zibilari emango dion bultzadak indarra galduko duelako. Zerbitzuek, berriz, urte arteko aldakuntza tasa txikiak jasoko dituzte aurreikuspen epealdi horretan. Bilakaera negatibo horien ondorioz, 33.000 lanpostu galduko dira 2009an eta beste 20.000 datorren urtean, langabezia tasa 2010eko bigarren seihilekoan %9,4ra igoz.

EAE-KO EKONOMIA 2009KO BIGARREN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

2009. urteko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak bizi duen atzeraldiak jarraitu zuen, nahiz eta jaitsiera erritmoa zertxobait leundu zen, nazioarteko merkataritzaren susperraldi txikiari eta finantza merkatuetako nolabaiteko normaltzeari esker. Ziurgabetasuna oraindik oso handia den arren, munduko adierazleek iradokitzen dute gaur eguneko atzeraldiak hondoa joa duela. Joera aldaketa horretan, ekonomia sustatzeko neurri garrantzitsuek eta finantza arloaren hobekuntzak paper azpimarragarria bete dute.

Garatutako ekonomiek, oro har, berriro gutxitu zuten beren hazkundera aurtengo bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteko baliotik oso hurbil dagoen tasa bat jasoz. Hala ere, herrialde nagusien artean, kontrako portaerak hauteman dira. Hain zuzen ere, Alemaniak eta Frantziak, ia bi urtez etengabeko beherakadak jaso ondoren, narriadura galgatzea lortu zuten eta zertxobait goratu dute beren ekonomia jarduera. Orobat adierazi daiteke Japoniaz, aurreko hiruhilabeteko jaitsieraren aldean puntu bat baino gehiago hobetu delako. Aitzitik, AEBetan, adierazle nagusietan hobekuntza garrantzitsuak hauteman diren arren, %-3,8ra areagotu da jaitsiera, 1947tik kontabilizatzen den seriearen emaitza okerrenea baita.


Garapen bidean dauden ekonomiek, berriz, aurreko hiruhilabetekoa baino emaitza zertxobait hobea eskaini zuten, bertako gobernuek bideratu dituzten zerga bidezko bultzada eta likidezia areagotzeko egitasmoen ondorioz. Horiek horrela, munduko ekonomiak makulu sendoa aurkitu zuen Txinako eta, neurri txikiagoan, Indiako hazkunde bizian. Asiako bi erraldoi horien bizkortzea dago nazioarteko merkataritzak izan berri duen gorakadaren atzean, iaz ezagututako amiltzearen ondoren. Eremu horretako beste herrialde batzuek ere emaitzak hobetu dituzte, baina gehienek tasa negatibotan jarraitzen dute.

Oro har, munduko ekonomiaren ahultasunak eta aurreko urtean petrolioaren salneurriak izan zuen gorakada handia orain beherakada bihurtu izanak nabarmen apaldu zuten prezioen bilakaera. Hori dela eta, AEBetan, Japonian eta Europako herrialde batzuetan urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso dira. Lan merkatuak, ordea, oso ibilbide negatiboa izan du. Langabezia tasak oso bizkor igo dira eta maila altuetan kokatu dira Espainia eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan. Gaur eguneko atzeraldiaren une larriena atzean geratu dela dirudien arren, 2009ko lehen seihilekoak azken 60 urteko daturik okerrenea utzi zuen, eta herrialde garatuetan izan duen eragin bizkorrak ekonomia erakunde nagusien usteak gaingitu ditu.


Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Txinako ekonomia nabarmentzen da nazioarteko testuinguruan, zailtasunez beteriko faseari arrakastaz aurre egin diolako eta suspertzeko zantzu garbiak erakutsi dituen lehen herrialdea izan delako. 2009ko bigarren hiruhilekoan, Txinak munduko atzeralditik aldendu zen eta %7,9ko tasa sendoa lortu zuen. Munduko lehen hamar potentzien artean, bera izan da hazkunde tasa positiboa eta aurrekoa baino indartsuagoa lortu duen bakarra. Barne kontsumoaren eta, oso bereziki, inbertsioaren igoerak, ekonomia suspertzeko egitasmoek bultzatuta, eta banku kredituaren hedatzeak urteko hazkundea %8,0ra eramateko helburura hurbiltzea ahalbidetu zuten. Txina hazkunde erdua aldatzen hasi da, kanpo merkataritzatik, berriro murriztu baitzen, barne merkatura. Azkenik, kontsumoko prezioak berriro apaldu ziren eta uztailean %-1,8ra jaitsi, sei hilabetez jarraian urte arteko beherakadak jasoz.

Ekonomia garatuen bilakaera askoz okerragoa izan zen. Hain zuzen ere, AEBek berriro murriztu zuten beren BPGren hazkundea bigarren hiruhilekoan, oraingoan %-3,8ra, serie historiko osoan inoiz jaso den daturik apalena baita. Esportazioak oso azkar jaitsi dira eta etxebizitzetan eginiko inbertsioak ez du oraindik hondoa jo. Beherakada are handiagoa izan zitekeen, baina inportazioen ahultasunak eta gastu publikoaren gehikuntzak eragotzi zuten. Bigarren hiruhilekoan, enplegu galera garbia leundu egin zen, baina 1,3 milioi lanpostu inguru galdu ziren eta langabezia tasa %9,3ra igo zen, azken hogeita sei urteko mailarik gorenetakoa. Azkenik, inflazio tasa %-1,0ra beheratu zen, 1950. urtetik inoiz jaso den jaitsierarik handiena baita.

Japoniak, aurtengo lehen hiruhilekoan ekonomia jarduerak izan zuen amiltze biziaren ondoren, hasiera erritmoa egonkortzea lortu zuen ondorengo hilabeteetan. Esportazioen hobekuntzak japoniar ekonomia sustatu du, neurri handian kanpo eskarian oinarritzen baita, eta Gobernuaren neurriek kontsumoaren jaitsiera galgatzea lortu zuten. Hala ere, inbertsiorik eza eta langabeziaren gorakada mehatxu larria dira oraindik susperraldia errotzeko. Orobat, inflazioa berriro kokatu da zenbaki negatibo handitan eta zalantzan jarri du oraingo susperraldiaren iraunkortasuna.

Eurogunearen ekonomia jarduerak berriro egin zuen behera, nahiz eta aurtengo lehen hilabeteetan izan zuen jaitsiera erritmoa zertxobait leundu zuen, bereziki Alemaniaren eta Frantziaren suspertze arinari esker. Bi herrialde horiek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten berriro, baina goranzko joera arina erakutsi zuten, bi urtez jarraian jaitsiera jaso ondoren. Hala ere, Europar Batasunaren multzoak ez zuen inolako hobekuntzarik jaso, Alemaniaren eta Frantziaren hobekuntza ez baitzen nahiko izan beste ekonomia batzuek, hala nola britainiarrak eta espainiarrak, izan zituzten emaitza okerragoak konpentsatzeko. Baltikoko herrialdeek ere oso tasa negatiboak jaso zituzten eta azken hilabeteetan Europar Batasuneko herrialdeen artean bilakaera okerreina izan dute.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala							
AEB	2,1	0,4	1,6	0,0	-1,9	-3,3	-3,8
Japonia	2,3	-0,7	0,7	-0,3	-4,5	-8,4	-7,2
EB - 27	2,8	0,9	1,8	0,6	-1,7	-4,8	-4,9
- Alemania	2,5	1,3	2,0	0,8	-1,8	-6,7	-5,9
- Frantzia	2,3	0,4	1,0	0,1	-1,7	-3,5	-2,8
- Erresuma Batua	2,6	0,7	1,8	0,3	-2,0	-5,0	-5,5
Inflazioa							
AEB	2,8	3,8	4,4	5,3	1,6	0,0	-1,2
Japonia	0,0	1,4	1,4	2,2	1,0	-0,1	-1,0
EB - 27	2,4	3,7	3,9	4,3	2,9	1,6	0,9
- Alemania	2,3	2,8	3,0	3,3	1,7	0,8	0,3
- Frantzia	1,6	3,2	3,7	3,6	2,0	0,7	-0,3
- Erresuma Batua	2,3	3,6	3,4	4,8	3,9	3,0	2,1
Langabezia tasa							
AEB	4,6	5,8	5,4	6,1	6,9	8,1	9,3
Japonia	3,9	4,0	4,0	4,0	4,0	4,4	5,2
EB - 27	7,1	7,0	6,8	7,0	7,5	8,2	8,8
- Alemania	8,4	7,3	7,4	7,2	7,1	7,3	7,7
- Frantzia	8,3	7,7	7,7	7,9	8,3	8,8	9,3
- Erresuma Batua	5,3	5,6	5,3	5,8	6,3	7,1	7,7

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Hain zuzen ere, Alemaniak eta Frantziak zertxobait hobetu zuten BPGren urte arteko aldakuntza tasa, kontsumo pribatuaren hazkundeari esker, prezioak igotzen ez direlako eta ekonomia suspertzeko planek lagundu dutelako, eta kanpo arloaren bizkortzeari esker. Bi aldagai horiek neurri batean inbertsioaren ahultasuna eta izakinen murrizketa konpentsatu zuten. Erresuma Batuak bere atzeraldia areagotu zuen. Enpleguaren galerak eta higiezinen zein finantza aberastasunaren murrizketak eskariaren osagai guztietan, hala barnekoan nola kanpokoan, eragin zuten eta oraingoz ez dirudi suspertzeko zantzurik erakutsiko dutenik. Oro har, herrialde batzuek ekonomia jardueran erakutsi duten narriadura txikiagoa kanpo arloaren ekarpen handixeagoaren ondorioa da, batez ere inportazioak asko murriztu direlako, esportazioak ez direlako gehiegi berpiztu. Horrek agerian uzten du barne eskariak ahul daudela oraindik. Aurrekoaz gain, aipatu behar da kontsumo pribatuaren suspertzea zerga eta moneta

pizgarrien ondorioa izan dela eta zalantzak daude, pizgarri horiek kendu ondoren, susperraldiaren bizitasunaz.

Lan merkatuak okertzen jarraitu zuen. Uztailan, Europar Batasuneko langabezia tasa %9,0ra igo zen eta 22 milioi langabeen kopuruaren inguruan kokatu. Kopuru horretatik, ia %20 espainiar merkatuak ekarri zituen, bertako langabezia tasa %18tik gora kokatu zelako. Alemanian eta Frantzian, krisiak enpleguan izan zuen eragina nahiko murrizta izan zen berriro eta horrek lagundu zuen langabezia tasa igo gabe eusten. Aitzitik, Erresuma Batuan langabezia tasa azken hamalau urteko mailarik gorenera igo zen. Prezioen bilakaerari dagokionez, deflazioaren mehatxua europar ekonomien gainera ibili zen. Hain zuzen ere, Frantziak 50 urtetik gorako epealdi batean lehen aldiz, KPI indizean tasa negatiboa jaso zuen maiatzean eta joera horri atxiki zion abuztua arte, horixe baita argitaratu den azken datua. Alemanian ere hauteman zen prezioen beherakada bizi hori eta maiatzean eta ekainean hazkunde hutsalak jaso ondoren, uztailan hazkunde tasa negatiboa izan zuen. Europako ekonomia nagusien artean, Erresuma Batuan bakarrik izan zuen kontsumoko prezioen indizeak aldakuntza tasa positiboa.

2009ko bigarren hiruhilekoan, Espainia espero zena baino gehiago uzkuritu zen (%-4,2) eta estatistika hau 1970ean egiten hasi zenetik inoiz jaso den urte arteko jaitsierarik handiena ezagutu du hiruhileko horretan. Beheranzko joera areagotu izanak agerian uzten du Europako laugarren ekonomia Alemaniak eta Frantziak erakutsitako norabidetik desbideratu dela. Kanpo arloaren ekarpena oso garrantzitsua izan den arren, hiru puntu baino gehiago izan baita, nazio eskariaren ahultasunak BPGren narriadura justifikatzen du. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan %-7,3 gutxitu zen, lehen hiruhilabeteko %-6,1aren aldean, kontsumo pribatua eta inbertsioa gehiago gutxitu zirelako. Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiak beheratu ziren berriro, salbuespena lehen arloa delarik, eta aurreko hiruhilekoan baino gehiago.

4,4 milioi langaberekin, Espainia da Europar Batasunean lanik gabekoen kopururik handiena duen herrialde, duela bi urte bakarrik enplegu betetik hurbil zegoen bitartean. Hain zuzen ere, enplegua %7,1 murriztu zen 2009ko bigarren hiruhilekoan, bakarrik merkaturatzen ez diren zerbitzuek lanpostuak sortzen lortu zutelako. Datu horrek adierazten du lanaldi osoko ia 1,4 milioi lanpostu garbi galdu direla azken urtebetean. Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indizeak uztailan azken hamarkadetako beherakadarik handiena jaso zuen eta %-1,4ra jaitsi, lehengaien salneurria, bereziki petrolioarena, merkatu zelako. Abuztuan, %-0,8ra igo zen eta dagoeneko sei hilabetez jarraian Espainiako inflazioak hazkunde tasa negatiboak izan ditu, baina erakunde nagusiek ez dute aintzakotzat hartzen deflazioan erortzeko aukera eta prezioen beherakada arrazoi iragankorrek eragin dutela uste dute.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	4,1	0,9	1,4	0,4	-1,0	-2,2	-3,0
- Familien gastua	3,6	-0,6	0,2	-1,3	-3,3	-5,1	-5,9
- Administrazioaren gastua	5,5	5,5	5,1	5,8	6,3	6,4	5,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,6	-4,4	-1,9	-6,0	-10,9	-15,2	-17,0
- Ekipamendurako ondasunak	9,0	-1,8	2,9	-3,0	-11,6	-24,2	-28,9
- Eraikuntza	3,2	-5,5	-4,2	-7,2	-10,3	-11,5	-12,0
- Bestelako ekoizkinak	3,6	-4,3	-1,2	-6,1	-11,8	-14,0	-15,9
- Izakinen aldakuntza (*)	-0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1	-0,1
Nazio eskaria (*)	4,4	-0,5	0,6	-1,4	-3,9	-6,1	-7,3
Esportazioak	6,6	-1,0	2,4	-2,9	-7,1	-17,6	-15,7
Inportazioak	8,0	-4,9	-1,3	-7,6	-13,5	-22,9	-22,3
BPG (m.p.)	3,6	0,9	1,7	0,5	-1,2	-3,2	-4,2
Nekazaritza eta arrantza	1,8	-0,8	-0,1	-0,1	-3,0	-2,3	-1,0
Energia	0,9	1,9	4,0	2,4	-2,4	-7,3	-9,7
Industria	0,9	-2,1	-0,7	-3,0	-6,9	-15,0	-18,1
Eraikuntza	2,3	-1,3	-0,2	-1,5	-4,3	-5,7	-6,0
Zerbitzuak	5,0	2,2	2,9	1,8	0,7	-0,2	-1,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	1,0	1,0	-0,4	-1,8	-2,0	-1,8	-2,4
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,6	4,9	2,5	0,5	-0,7
- Enplegua (**)	2,8	-0,6	0,3	-1,0	-3,2	-6,3	-7,1

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
 Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Azkenik, administrazio publikoek ekainean 38.607 milioi euroko defizita metatu zuten, kontabilitate nazionalako terminoetan adierazita. Tokiko Inbertsiorako Funtsa, Sustapen Funtsa, langabezia saria handiagoak eta inbertsioen gehikuntza dira defizit publikoaren hazkundearen atzean dauden arrazoi nagusiak. Defizita barne produktu gordinaren %3,64 izatera iritsi da.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek egin dituen estimazioen arabera, barne produktu gordinaren hazkunde erreala 2009ko bigarren hiruhilekoan %-3,6 izan zen, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino bederatzi hamarren txikiagoa. Hori horrela izanda, 2009ko lehen seiuhilekoan, EAEko ekonomia, batez beste, %3,0aren inguruko beherakada jaso du. Hala ere, hiruhilabete arteko hazkunde tasa %1,0 jaitsi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabetekoa baino bost hamarren txikiagoa delarik. Beraz, EAEko barne produktu gordinak hiruhilabete arteko jaitsiera erritmoa moteldu du. Dena dela, ekonomiaren narriadura leuntzen ari den arren, ziurgabetasun handia dago ekonomiak hondoa noiz joko duen uneaz.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	4,1	2,2	3,4	1,9	-0,3	-2,0	-2,9
- Familien gastua kontsumoan	3,6	1,6	3,1	1,0	-1,4	-3,7	-4,6
- Herri admin. gastua kontsumoan	6,4	4,8	4,4	5,3	4,1	4,5	3,7
Kapital eraketa gordina	4,6	0,5	1,9	0,0	-2,5	-6,8	-9,1
Barne eskaria	4,3	1,8	2,9	1,3	-0,9	-3,3	-4,6
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,3	0,0	-0,7	0,5	1,2	1,0	1,2
Esportazioak	5,4	4,1	7,8	5,5	-2,2	-11,8	-16,4
Inportazioak	5,4	3,8	8,4	4,4	-3,9	-12,3	-17,0
BPG (m.p.)	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6
Lehen arloa	0,0	0,5	-1,2	-3,8	5,7	17,2	9,9
Industria	3,1	-0,5	0,4	0,0	-3,2	-8,6	-10,0
Eraikuntza	11,3	-1,1	-0,4	-1,4	-3,4	-4,8	-5,2
Zerbitzuak	4,1	3,5	3,6	3,6	2,8	0,5	-0,5
Balio erantsi gordina	4,4	1,9	2,2	2,0	0,5	-2,4	-3,6
Ekoizkinen zerga garbiak	2,8	1,8	3,2	0,9	-1,4	-3,6	-4,0

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Barne eskaria osatzen duten osagai guztiek hazkunde tasa okerragoak jaso dituzte. Esate baterako, kontsumo pribatua inoizko mailarik apalenean dago. Finantza merkatuen zurruntasunak, langabeziak eta aurrezkiaren igoerak familien kontsumoa gutxiarazi dute. Hala eta guztiz ere, barne eskariaren osagaien artean bilakaera ezkorrena erakutsi duen atala kapital

eraketa gordina izan da. Alde positiboan, kanpo eskariak barne produktu gordinari egin dion ekarpena areagotu da epealdi horretan. Horren arrazoia inportazioen beherakada nabarmena da, barne eskariaren ahultasunaren ondorioz. Beste aldetik, esportazioek ere jaitsiera handia izan zuten, nazioartean bizi den atzeraldiko testuinguruarengatik. Hala ere, esportazioen murrizketa inportazioena baino txikiagoa izan zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen arlo guztiek okertu zuten bere hazkunde tasa. Jarduera adarren artean, balio erantsia areagotu zuen bakarra lehen arloa izan zen. Eskaintzaren gainontzeko osagai guztiek narriadura handia nozitu zuten eta EAEko ekonomia hazkundeak bigarren hiruhilekoan izan zuen beherakadan parte hartu zuten.

Ekoizpen jarduera


EAEko industrian bete egin dira enpresarien igurikimen ezkorrak eta sektore horretako balio erantsia %10,0 murriztu zen 2009ko bigarren hiruhilekoan urte arteko tasan neurtuta. Hori horrela izanda, industria da gaur eguneko atzeraldi ekonomikoan gehien sufritzen ari den arloa. Amiltze garrantzitsu hori oso garbi hauteman zen EAEko industria produkzioaren indizeak marraztu zuen ibilbidean. Koiunturako adierazle horrek hamaikagarren aldiz jarraian jaso zuen urte arteko tasa negatibo bat 2009ko ekainean. Bigarren hiruhilekoan, industriaren ekoizpena %24,6 gutxitu zen aurreko urteko hilabete beren aldean. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera aztertuta, krisiaren eragin kaltegarriena bitarteko ondasunek, ekipamendurako ondasunek eta kontsumo iraunkorreko ondasunek nozitu dute. Talde horietan, narriaduraren tamaina %30,0aren inguruan kokatu da, urte arteko tasan.

Industria jarduerak adarka aztertuta, beste hiruhileko batez, EAEko balio erantsiari ekarpen handienak egiten dizkioten adarrak, hots, makineria eta metalurgia, dira kaltetuenak barne eta kanpo eskarien ahultasuneko testuinguru honetan.


Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresarien iritzien gaineko inkestaz argitaratu dituen datuek baieztatzen dute industrian ezkortasuna dela nagusi. Industria giroaren indizeak emaitza txarrak (-54,1) jaso zituen berriro 2009ko bigarren hiruhilekoan, baina lehen hiruhilabetekoak baino zertxobait hobek. Industriaren ondasun guztiek oso nabarmen murriztu dute eskari zorroa, baina guztietatik azpimarratu behar dira bitarteko ondasunak. Industria ekoizpenaren joerari dagokionez, azken datuek, oraindik negatiboak izan arren, nolabaiteko hobekuntza adierazten dute.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Industria							
Balio erantsi gordina	3,1	-0,5	0,4	0,0	-3,2	-8,6	-10,0
Industria produkzioaren indizea (*)	4,1	-3,8	-1,1	-3,0	-11,5	-23,9	-24,2
Industria giroaren indizea	3,1	-14,7	-5,0	-13,1	-38,3	-55,6	-54,1
Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)	82,1	82,6	83,8	81,0	81,4	68,1	64,1
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	1,8	-0,3	0,4	-0,2	-2,3	-5,1	-6,8
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	11,3	-1,1	-0,4	-1,4	-3,4	-4,8	-5,2
Eskainitako etxebizitzak	14,1	31,1	36,1	33,7	21,4	---	---
Obra berriko baimenak	4,2	-35,3	-35,1	-29,6	-32,0	5,0	---
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	5,3	-3,1	-1,9	-2,7	-7,3	-9,3	-9,1
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	4,1	3,5	3,6	3,6	2,8	0,5	-0,5
Hegazkinen bidezko trafikoa	11,1	-4,7	-3,8	-10,8	-16,1	-24,5	-16,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	3,0	-3,2	-8,8	-5,8	-6,9	-16,5	1,5
Hoteletako okupazioa	46,6	43,9	45,1	53,5	38,4	30,6	42,7
Negozio zifren indizea	6,3	-0,2	4,2	1,5	-8,4	-14,4	-18,5
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,2	2,3	3,2	1,5	1,2	-1,0	-2,1
Enplegua (barne merkataritza indizea)	2,7	1,5	2,2	1,3	-0,4	-2,7	-3,6

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaz argitaratu diren koiuntura datuetatik ondorioztatzen da 2009ko bigarren hiruhilekoan etxegintzaren doikuntzak aurrera jarraitu zuela eta obra publikoak nabarmen areagotu zuela bere jarduera, baina ez zela nahiko izan lehenengoaren narriadura

konpentsatzeko. Aurrekoaren ondorioz, eraikuntzaren balio erantsia %5,2ko urte arteko jaitsiera izan zuen apirila eta ekaina bitartean.

Norabide berean doa Eustatek egiten duen eraikuntzaren koiuntura indizea, 2009ko bigarren hiruhilabeterako azken estimazioetan arloaren beherakada %9,7ko jaitsieran estimatu baitu. Okerragotzea eraikinen atalean gertatu da osorik, zeren eta obra zibilak gutxiago jaitsi baita eta %-2,7ko tasa jaso du. Sustapen Ministerioak lizitazio ofizialez argitaratu dituen datuek erakusten dute urtariletik maiatzera bitartean aldagai hori %40,0aren ingurua igo zela 2008ko hilabete beren aldean. Datu horiek nolabaiteko baikortasuna ahalbidetzen dute arloaren etorkizunaz.

Hirugarren arloak ere ez du suspertzeko zantzurik erakutsi. Aitzitik, sektore horren balio erantsiaren hazkundera 2009ko apiriletik ekainera bitartean negatiboa izan da, %-0,5, serie osoan aurrekaririk ez zeukan maila bat ezarriz. Bilakaera horren arduraduna merkaturatzen diren zerbitzuek izan duten murrizketa bizia (%-1,9) da. Beste aldetik, merkatutik kanpo dauden zerbitzuak, bereziki administrazio publikoek eskainiak, aurreko hiruhilabeteetako norabideari jarraitu zioten eta %6,4ko hazkunde tasa bat jaso.

Barne merkataritzako indizeaz argitaratu diren azken datuek agerian uzten dute beherakada garrantzitsua gauzatu dela hala txikizkako merkataritzan nola, bereziki, handizkakoan. Azken atal horretan, jaitsiera garrantzitsuenak erdi landutako ekoizketan, txatarrean, eta makineria eta ekipamendurako ondasunetan gertatu dira. Turismoari dagokionez, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak 2009ko bigarren hiruhilabetean igarotako gauen kopurua aurreko urteko epe beraren aldean igo egin dela estimatu du. Halaber, batez besteko egonaldia luzatu da, bai Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorritako turisten artean bai atzerrietik iritsitakoen artean. Kontrako norabidera seinالاتu zuten aireko trafikoen datuek, aurtengo bigarren hiruhilekoan EAEko aireportuak erabili dituzten bidaiarien kopurua asko murriztu zen. Dena dela, eta zeinu kontrajarriko seinale horiek hor daudelarik, hurrengo datuek baieztatuko dute turismo arloan eta, horrekin lotuta, zerbitzuen jardueran unerik txarrena atzean geratu den ala ez.

Eskariaren osagaiak

Azken kontsumoan eginiko gastuak hazkunde negatiboko profilari atxiki zion eta aldakuntza tasa %-2,9an estimatu da bigarren hiruhilabeterako. Narriadura hori, batez ere, familien azken

kontsumoaren beherakada handian (%-4,6) oinarritzen da, baina baita administrazio publikoen gastuak izan duen leuntze arinean ere (%3,7).

Gaur eguneko ekonomia krisiak oso gogor kolpatu ditu lan merkatua eta EAEko familien konfiantza. Barne eskariaren osagai horretaz argitaratzen diren koiunturako adierazleek baieztatzen dute familien kontsumoa murriztu zela 2009ko bigarren hiruhilekoan. Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratzen dituen kontsumitzaileen konfiantza indizearen datuek erakusten dute azken hiruhilabeteetan narriadura hori areagotu dela. Ezkortasuna areagotzen ari da kontsumitzaileen artean, enpleguari buruzko igurikimenak oso nabarmen okertu direlako eta ekonomia egoeraren larriaz ikuspegi negatiboagoa dutelako. Kontsumitzaileek erosketak atzeratzen dituzte eta zuhurrak izan nahi dute etorkizuneko errenten igurikimenak beherantz zuzendu direlako. Txikizkako merkataritzan eta azalera handietan neurtzen diren salmenten indizeek ere hazkunde tasa negatiboak erakusten dituzte eta apiriletik ekainera familien kontsumoak izan zuen bilakaera ezkorra baieztatzen dute. Automobilien matrikulazioak EAEn berriro gutxitu ziren, baina aurreko hiruhilabeteetan baino gutxiago, Gobernuak ezarri dituen laguntzei esker.


Finantza erakundeek emandako banku kredituak, Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera, %0,4 areagotu ziren 2009ko bigarren hiruhilekoan. Gogoratu behar da aurreko urteko epealdi berean gehikuntza tasa %5,6an kokatu zela. Datu horiek ikusita, berriro baieztatzen da azken hilabeteetan EAEko familiek oso nabarmen gutxitu dituztela bere gastuak.

Kapitaleko eraketa gordina da ekonomia atzeraldiak eta ekonomia eragileen konfiantza galerak gehien kaltetu duten osagaia. Osagai hori berriro murriztu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta beherakada hori %-9,1ean estimatu da, aurreko hiruhilabeteetan jasotako tasa baino bi puntu luze beherago dagoela. Jaitsiera horretan parte hartu zuten bai eraikuntzak bai ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, azken honek beherakada handiago batekin. Beherantzko joera hori eskura dauden adierazleen datuek ere egiaztatzen dute. Ekipamendurako ondasunen industria produkzioaren indizeak, hala Estatuak nola EAEkoak, oso hazkunde tasa negatiboak jaso zituen epealdi horretan. Okerragoa izan zen beste aldagai batzuek erakutsi zuten bilakaera, hala nola ekipamendurako ondasunen inportazioak eta zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak. Informazio horretatik ondoriozta daiteke nazioarteko krisi ekonomikoak eta finantza erakundeek ezarri dituzten kreditu murrizketek ezkortasuna areagotu dutela EAEko enpresetan.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	3,6	1,6	3,1	1,0	-1,4	-3,7	-4,6
BMI txikizkaria	1,4	-3,2	-3,4	-0,8	-6,1	-7,7	-3,5
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	-0,9	-3,4	-3,1	-3,8	-4,3	-4,7	-4,9
Landunak txikizkarian	2,7	2,2	3,2	2,2	-0,2	-2,6	-3,2
Automobilen matrikulazioa (*)	-4,0	-20,0	-17,3	-24,1	-25,5	-24,8	-16,6
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,0	80,0	80,0	75,0	71,0	70,0	67,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	4,6	0,5	1,9	0,0	-2,5	-6,8	-9,1
IPI ekipamendua EAE (*)	7,5	-2,3	0,4	-1,0	-9,5	-25,9	-28,9
IPI ekipamendua Estatua (*)	4,8	-9,4	-6,3	-8,1	-21,6	-28,2	-28,0
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	14,5	-1,1	22,5	-8,2	-26,8	-41,8	-31,9
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-3,0	-37,3	-30,9	-44,1	-50,5	-50,0	-47,4

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna


Gaur eguneko krisiak jardueraren eta munduko merkataritzaren murrizketa garrantzitsua eragin zuen aurtengo lehen hilabeteetan. Hala ere, azken datu ekonomikoek iradokitzen dute atzeraldia leuntzen ari dela, urteko bigarren hiruhilekoan jaitsierak zertxobait txikiagoak izan direlako. Herrialde nagusietan bideratu diren politika makroekonomikoek eta finantzarioek dira norabide aldaketa txiki horren atzean daudenak. Merkataritzaren alorrari dagokionez, bigarren hiruhilabeteko datuak negatiboak izan ziren berriro, nahiz eta esportazioen bilakaeran hobekuntza txiki bat hauteman zen.

Esportazioen eta inportazioen hazkundeak ekonomia nagusietan oraindik negatiboak diren arren, uztailean eta abuztuan esportazioen jaitsiera erritmoan moteltzeko joera arina hauteman zen. Horri erantsi behar zaio inportazioen beherakada are handiagoa izan zela garatutako ekonomia batzuetan eta, bi aldagai horien bilakaeraren ondorioz, merkataritzako saldoa nabarmen hobetu zen herrialde horietan.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

EAEko ekonomia ez zen aldendu merkataritzako salerosketen bilakaera horretatik eta, neurri batean, merkataritzako bazkide nagusiek baino irudi hobea erakutsi zuen, merkataritzako balantzak, hala guztizkoak nola energiari gabeak, superabita jaso zutelako. Hala ere, bai esportazioak bai inportazioak berriro gutxitu ziren bi zenbakiko erritmotan. Azken horiek gehiago murriztu zirenez areagotu zen kanpo saldoa, inoizko handienetarikoa izan baitzen. Hain zuzen ere, esportazioak guztira % -35,9ko urte arteko tasan kokatu ziren eta inportazioak are gehiago gutxitu ziren, % -47,0ra iritsi arte. Bi bilakaera horien ondorioz, merkataritzako saldo guztia positiboa izan zen eta 654 milioi eurotik gorakoa. Energiar bestelako saldoa, berriz, 1.370 milioi eurora iritsi zen.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA







	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2009-II
	2007	2008	2008			2009		
			II	III	IV	I	II	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	14,6	6,7	19,6	13,8	-10,2	-26,0	-35,9	3.667.267
Ez energetikoak	14,7	5,5	16,2	14,6	-10,2	-23,9	-34,9	3.341.503
INPORTAZIOAK								
Guztira	8,2	7,1	16,5	20,0	-22,4	-41,4	-47,0	3.013.201
Ez energetikoak	14,1	-0,8	4,9	6,4	-19,3	-41,7	-44,4	1.972.381

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2008koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Kontuan hartu behar da esportazioek 2009. urtean izan duten beherakada biziaren zati bat prezioek 2008. urtean jaso zuten garestitze garrantzitsuen ondorioa dela, gaur egun lehengaien salneurria merkatu delako eta bi urteen arteko alderaketak egiten direnean jaitsiera nabarmen horiek agertzen direlako. Hori horrela izanda, beharrezkoa da analisia saldutako unitateekin egitea, prezioek beraietan izan duten eragina saihestuz. Izan ere, 2009ko bigarren hiruhilekoan esportazioak, hala guztizkoak nola energiaz bestelakoak, nabarmen areagotu zirela agerian geratzen da, lehen hiru hilabeteetan, hurrenez hurren, %-23,7 eta %-30,4 murriztu ondoren, bigarren hiruhilekoan beherakada horiek %-16,3ra eta %-18,8ra mugatu zituztelako.

Esportazioen analisia arantzel sekzioka egiten denean, energiak, arlo kimikoak, eta plastikoa eta kautxua biltzen dituenak hobekuntza garbia lortu zuten aurreko hiruhilabeteko emaitzen aldean, askoz gutxiago jaitsi zirelako. Hala eta guztiz ere, beherakada horiek oso garrantzitsuak izan ziren berriro, are gehiago ekipamendurako ondasunetan eta metal arruntak eta beren manufacturetan. Inportazioen jaitsiera handia ondasun talde guztietara hedatu zen, baina bereziki azpimarratu behar da metal arruntek eta beren manufacturek izan zuten %-62ko aldakuntza tasa. Izan ere, atal guztietan gertatu ziren murrizketa nabarmenak eta salbuespen bakarrak papergintza eta ekipamendurako ondasunen arloa izan ziren aurreko hilabeteetan jasotakoak baino beherakada txikiagoak izan zituztela, garraio materialak lortu zuen hobekuntza txiki bati esker.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak
8. irudia
Energiako ondasunen esportazioak

Energiako ondasunen inportazioak

Ekipamendurako ondasunen esportazioak

Ekipamendurako ondasunen inportazioak

Metal arrunten eta beren manuf. esportazioak

Metal arrunten eta beren manuf. inportazioak


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

2009ko bigarren hiruhilekoan, energiaz bestelako esportazio guztien %66 baino gehiago Europar Batasunera bideratu ziren, eta lurralde horretatik etorri ziren inportazioen %64aren ingurua. Lotura estu horren ondorioz, merkatuak hazten direnean, salerosketak oso azkar areagotzen dira, baina gaur eguneko bezalako atzeraldietan ere esportazioen eta inportazioen murrizketa oso garrantzitsua izaten da. Aurrekoaren ondorioz, lurralde horretara bidalitako energiaz bestelako esportazioak %-40 baino gehiago gutxitu ziren berriro, EAEko merkataritza bazkide nagusi guztietan eginiko salmentak oso nabarmen gutxitu zirelako. Bereziki azpimarragarria da Alemanian saldutakoa, berau baita EAEren merkataritza bazkide behinena eta bi herrialdeetako esportazioen artean, automobilgintzaren jardueraren bitartez, dagoen lotura estuaren ondorioz, portaera hobea espero baitzen, Alemaniako susperraldi txikia ezagututa.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZA EZ-ENERGETIKOAREN HELBURUA ETA JATORRIA 10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2007	2008	2008			2009		2009-II
			II	III	IV	I	II	
Esportazioak								
ELGE	10,2	3,1	14,2	10,2	-11,9	-28,8	-39,0	2.536.241
Eurogunea	10,1	5,4	17,9	13,5	-10,5	-33,5	-40,1	1.852.555
Europako kide berriak	28,7	5,5	8,7	3,8	-12,7	-45,5	-28,1	176.499
Europar Batasuna 27	11,0	3,2	15,5	9,6	-14,7	-35,4	-40,7	2.219.036
Errusia	44,2	53,5	76,5	56,2	29,9	-53,4	-53,2	31.104
Txina	20,6	38,1	55,6	53,6	9,1	-20,0	-40,2	67.020
Brasil	46,2	14,5	17,4	4,7	19,1	-26,7	-46,7	48.984
Inportazioak								
ELGE	13,6	-2,3	6,2	4,2	-23,3	-43,4	-41,2	1.563.417
Eurogunea	15,7	-1,4	11,5	3,5	-26,4	-46,6	-40,4	1.221.092
Europako kide berriak	14,8	7,6	15,8	23,5	-8,9	-26,3	-42,0	65.622
Europar Batasuna 27	12,0	-2,8	7,7	3,6	-25,8	-46,5	-42,0	1.391.690
Errusia	6,9	4,7	-2,0	46,2	-36,8	-44,4	-76,7	35.106
Txina	45,7	-2,4	1,0	-13,3	-11,9	-27,3	-37,3	161.683
Brasil	-15,9	0,7	-21,7	25,1	4,8	-59,1	-78,0	8.690

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2008. urteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Gainontzeko eremuetara eta herrialdeetara bideratutako energiaz bestelako esportazioek ere aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten. Beraien artean, AEBetara zuzendutako salmenten

bilakaera txarra nabarmendu behar da, aurtengo lehen hiruhilekoa arte oso bizkor eta %18aren gainetik hazi baitzen –hazkundera positiboa izaten lortzen zuen ekonomia gutxi horietako bat zen-, eta bigarren hiruhilekoan %27,3 gutxitu zen, batez ere altzairu eta burdinaren manufakturen beherakadaren ondorioz.

EAEko ekonomiak izan zuen jarduera erritmo apalagoak eragin handia izan zuen kanpoan egindako erosketetan. Barne eskariaren ahultasuna eta inbertsio eza agerian geratu ziren jatorri guztietatik etorri ziren energiaz bestelako inportazioek izan zuten amiltze harrigarrian, kasu batzuetan %50eko beherakadak gainditu zituztelako. Eremu guztietan tamaina handiko hazkunde tasa negatiboak jaso baziren ere, nolabaiteko hobekuntza hauteman zen Europan erositako energiaz bestelako ondasunen bilakaeran. Izan ere, eta Alemanian, Frantzia edo Erresuma Batuan jaso ziren beherakadak inportazioen serie osoan inoiz gertatu diren handienak badira ere, urte hasieran ezagutu ziren jaitsieren aldean nolabaiteko hobekuntza igarri zen. Europar Batasunaren eremutik kanpo, emaitzen bilakaera are okerragoa izan zen. Japoniak Euskadin egiten zituen salmentak igotzea lortu zuen, baina bigarren hiruhilekoan aldakuntza tasa negatibotan kokatu zen. Azkenik, Errusian, Txinan eta Brasilen erositakoaren balioa izugarri murriztu zen.

Lan merkatua

Ekonomiaren atzeraldia areagotu izanak eragin handia izan zuen lan merkatuaren bilakaeran bigarren hiruhilekoan, landunen murrizketaren erritmoa bizitu baitzuen. Hala ere, enplegua galtzeko joera handia egon arren, langabezia tasak balio apaletan eta Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek aurkeztu zituzten emaitzen oso azpitik jarraitu zuen.

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Landunak (BJA inkesta)	1,7	1,0	2,7	0,9	-1,2	-3,2	-4,0
Lanpostuak (hiruhilekako kontuak)	2,8	1,1	1,9	0,6	-0,6	-2,9	-4,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,7	1,2	1,8	1,3	-0,3	-2,5	-4,0
Langabeak (BJA inkesta)	-19,2	17,2	5,8	16,0	49,5	133,9	122,9
Langabeak (INEM)	-6,4	11,8	8,5	10,2	27,1	40,2	48,3
Langabezia tasa (BJA inkesta)	%3,3	%3,8	%3,5	%3,5	%4,7	%7,7	%7,8


Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INEM.

Zehazkiago adierazita, enpleguaren bilakaera aztertzen duten estatistika guztiek oso jaitsiera garrantzitsuak eta balio berekoak (%4) erakutsi zituzten. Tasa horrek adierazten du urtebete bateko epean 41.000 lanpostu inguru galdu direla. Hala eta guztiz ere, hilabeteen behin argitaratzen diren azken datuek lan merkatuaren narriadura galgatzeko bidean egon daitekeela iradokitzen dute, bai enpleguaren galerari dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliazioen kopuruak baieztatzen duenez, bai langabeziaren bilakaeraren atalean, INEMen erregistroetatik eratorritzen denez.


Enplegu estatistiken bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Hiruhilabetekako kontu ekonomikoek eskaintzen dituzten sektoreen bilakaerari dagokionez, aurreko hiruhilabeteko okerragotze nabarmenaren ondoren, apirila eta ekaina bitartean arlo horiek beherakadak areagotzen jarraitu zuten, baina jaitsiera horietan leuntzeko joera arina ere hauteman den. Are gehiago, eraikuntzan, enpleguaren murrizketa lehen hiruhilabetekoa baino txikiagoa izan zen (%-9,1 eta %-9,3, hurrenez hurren), neurri batean, bultzatzen ari diren obra zibileko egitasmoei esker, etxegintzan eginiko inbertsioaren ahultasuna konpentsatzen baitute. Beste aldetik, bai industria jarduerak bai zerbitzueta adarrek enplegu galera areagotu zuten, egonkortzeko zantzurik erakutsi gabe.

Kontuan hartzen badira enpleguak eta balio erantsiak bigarren hiruhilekoan izan zituzten jaitsierak, ekoizkortasun irabaziaz epealdi horretan nahiko txikiak (lau hamarrenekoak) izan zirela ondorioztatzen da, bereziki gogoratzen bada krisi garai batean lortu direla. Izan ere, aurreko krisi garaian (laurogeietan eta laurogeita hamarretako hasieran) enpleguaren murrizketak oso nabarmen gaitzen zuen balio erantsiaren galera, eta la faktorea izaten zen enpresek zailtasunak gaitzeko erabiltzen zuten lehen tresnetako bat. Hala ere, gaur eguneko erantzuna kontrako norabidea joaten ari da eta enpresak, batez ere teknologian espezializazio handiena lortu dutenak eta industriari lotuago daudenak, ahalegin handiak egiten ari dira dauzkaten langileak beren egituretan atxikitzeko, azken urteetan bizi den eta 2011. urtetik aurrera ustez berriro ezagutuko den testuinguru dinamiko batean lan esku kualifikatua lortzea oso zaila izango dela badakitelako.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Enplegua guztira	2,8	1,0	1,9	0,6	-0,6	-2,9	-4,0
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,4	0,9	0,4	1,3	0,9	0,4	0,4
Enplegua lehen arloan	-4,2	-1,6	-0,4	-1,2	-1,2	-5,2	-4,9
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	4,4	2,1	-0,8	-2,6	7,0	23,6	15,6
Enplegua industrian	1,8	-0,3	0,4	-0,2	-2,3	-5,1	-6,8
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	1,3	-0,2	0,0	0,2	-0,9	-3,7	-3,4
Enplegua eraikuntzan	5,3	-3,1	-1,9	-2,7	-7,3	-9,3	-9,1
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	5,7	2,1	1,5	1,3	4,2	5,0	4,3
Enplegua zerbitzueta	3,2	2,2	3,2	1,5	1,2	-1,0	-2,1
<i>Ekoizkortasuna zerbitzueta</i>	1,4	0,9	0,4	2,1	1,6	1,5	1,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestaren arabera, lanpostuen galera neurri handiagoan kaltetu zituen gizonak emakumeak baino, azken urtebetean gizon landunen kopurua %5,8 gutxitu den bitartean, emakumeena %1,7 baino ez baitzen jaitsi. Portaera ezberdin horren atzean, neurri handi batean, krisiak gehien kaltetu dituen sektoreetan, hots, industrian eta eraikuntzan, batez ere gizonak lan egiten dutelako egiaztapena dago. Beste aldetik, krisiak kalte egin die adin talde guztiei, nahiz eta intentsitatea ezberdina den. Oro har, enpleguak bigarren hiruhilekoan izan zuen beherakadak eragin handiagoa izan zuen talde gazteenetan helduenetan baino. Hain zuzen ere, 16 eta 24 urte bitarteko taldean lanpostuen galera %24,2 izan zen. 25 eta 44 urte bitarteko taldean, berriz, beherakada %4,6ra mugatu zen, eta adin handiena dutenen taldean %0,1eko gehikuntza positibo txikia lortu zen.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

13. TAULA

Ehunekoak

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Partaidetza tasa guztira	-	55,3	55,4	55,4	55,2	55,7	55,3
- Gizonak	65,1	64,5	64,7	64,7	63,6	64,1	63,6
- Emakumeak	45,2	46,7	46,6	46,6	47,2	47,8	47,4
- 16 urtetik 24ra	33,5	34,6	35,6	35,5	31,6	32,8	31,4
- 25 urtetik 44ra	85,9	86,5	86,4	86,4	87,1	88,2	87,5
- 45 urte eta gehiago	36,9	37,6	37,6	37,6	37,6	37,8	37,8
Enplegu tasa guztira	53,1	53,3	53,4	53,4	52,6	51,4	50,9
- Gizonak	63,1	62,3	62,5	62,6	61,0	59,2	58,5
- Emakumeak	43,5	44,7	44,9	44,8	44,7	44,0	43,8
- 16 urtetik 24ra	30,9	31,2	32,1	32,2	27,9	26,0	25,0
- 25 urtetik 44ra	82,8	82,9	83,1	83,3	82,6	80,5	79,8
- 45 urte eta gehiago	36,2	36,8	36,8	36,7	36,6	36,2	36,1
Langabezia tasa guztira	3,3	3,8	3,5	3,5	4,7	7,7	7,8
- Gizonak	3,0	3,4	3,5	3,3	4,1	7,6	8,0
- Emakumeak	3,6	4,2	3,6	3,8	5,3	7,9	7,6
- 16 urtetik 24ra	7,7	9,9	9,8	9,1	11,8	20,8	20,5
- 25 urtetik 44ra	3,7	4,1	3,8	3,6	5,2	8,7	8,7
- 45 urte eta gehiago	1,8	2,3	2,0	2,5	2,7	4,2	4,5


Iturria: BJA (Eustat).

Enplegu bat lortzeko zailtasunek gazteenei egin diete kalte, lan merkatuan sartzeko orduan atzera egiten dutelako eta heziketa gehiagoaren aldeko autua hobesten dutelako. Hori dela eta, 25 urtetik beherako partaidetza tasa lau puntuz jaitsi da azken urtebetean, %31,4an kokatu

arte. Gainontzeko adinek nolabaiteko egonkortasuna erakusten dute beren tasetan. Baita emakumeen taldeak ere, aurreko bi hiruhilekoen aldean ia ez baitu aldaketarik erakutsi, urteetan bere partaidetza areagotzeko joera izan duen arren.

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enpleguan eta partaidetzan izan diren mugimendu horien ondorioz, langabeziak berriro egin du gora, baina langabezia tasak oso nabarmen leundu du bere igoera erritmoa. Hain zuzen ere, aurreko hiruhilekoan hiru puntu goratu bazen, bigarren hiruhilekoan igoera hamarren batera mugatu zen (%7,8, BJA inkestaren arabera) eta oraindik Europar Batasunaren tasaren azpian dago kokatuta. Langabeziaren gorakada handiagoa izan zen gizonen artean eta, horren ondorioz, bi sexuen langabezia tasak berriro hurbildu ziren.

Lan merkatuaren egoera larria bada ere, enplegua erregulatzeko dossierren estatistikak eskaini dituen datuak ez dira espero zitekeena bezain negatiboak, beraien gehikuntza motelduz joan delako, beraien eraginpean dauden langileen kopurua aurreko hiruhilabetekoa baino txikiagoa izan zelako eta dossier gehienak oraindik kontratua behin-behineko etetekoak eta lanaldia murriztekoak izan zirelako. Dena dela, oraindik arrisku handia dago behin-behineko eteteen dauden dossier horiek, oso eskari ahuleko testuinguru batean, kontratua behin-betiko eteteko dosierrak bihurtzeko.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

14. TAULA

	2007	2008	2008			2009		
			II	III	IV	I	II	Uztaila
Dosierren kopurua	282	496	66	43	341	613	763	237
Eragindako langileak	4.815	12.794	1.106	723	10.179	21.687	19.399	5.078
<i>Dosier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	17	108	19	6	82	579	323	49
- Behin-behineko etetea	3.856	11.216	789	464	9.553	20.418	18.719	4.873
- Kontratua amaitzekoa	942	1.470	298	253	544	690	357	156

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Kontratuen iraupenari dagokionez, BJA inkestaren arabera, kontratu mugagabeen kopurua oso gutxi (%-0,4) murriztu ziren eta lan doikuntza pairatu zuten ia bakarrak aldi baterako kontratua zuten soldatapekoak izan ziren, %14,5eko jaitsiera jaso zutelako. Horren ondorioz, aldibaterakotasun tasa berriro gutxitu zen, azken urteetako baliorik apalena (%18,1) lortu arte, nahiz eta oraindik balio altua den.

Prezioak, kostuak eta soldatak

2009ko bigarren hiruhilekoan, inflazioak urte arteko aldakuntza tasa moteltzen jarraitu zuen balio hutsaletara iritsi arte. Are gehiago, joera horri eutsi dio ondorengo hilabeteetan ere eta dagoeneko urte arteko jaitsierak jaso dira prezioetan. Hain zuzen ere, abuztuan, kontsumoko prezioen indizea laugarren hilabetez jarraian emaitza negatiboa (%-0,1) izan zuen. Inflazioaren ezohiko beherakada hori bi arrazoiengatik azaltzen da: familien kontsumoa jaitsi delako eta lehengaien salneurria, oro har, eta petrolio gordinarena, bereziki, asko merkatu direlako, aurreko urteetan pilatutako gorakaden ondoren.

Ekoizkin taldeak aztertuta, prezioen moteltzea orokorra izan da, baina energiako produktuen merkatzea nabarmendu behar da, bigarren hiruhilekoan aurrekaririk gabeko jaitsiera (%-11,8) jaso zutelako, lehenago aipatu den petrolioaren merkatzearen ondorioz eta elektrizitatearen garestitzea aurreko urteko epe berean izan zena baino txikiagoa izan zelako. Beste aldetik, landutako elikagaien prezioek gorakada txikia erakutsi zuten udaren hasieran, ekainean tabakoaren gaineko zergak igo zirelako. Hala ere, bai elikagai horiek bai landugabeek


gorakadak leuntzeko joerari jarraitu zioten, eskariaren presio faltaren ondorioz. Energiaz bestelako industria ondasunek, berriz, aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten berriro, nazioarteko merkatuetan dagoen lehia biziarengatik. Azkenik, besteak baino gehiago garestitu ziren arren, zerbitzuek azken bi urteko tasarik apalena (%2,8) aurkeztu zuten, ekonomiaren egoeraren aurrean sentsibiltate gehiago erakutsiz.

KPIren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioak, berriz, beheranzko joerari jarraipena eman zion eta bigarren hiruhilekoan %1,3an kokatu zen, inoizko maila apalenean. Inflazio orokorrarekiko aldea berriro zabaldu zen, indize orokorra are gehiago gutxitu zelako. Hala ere, petrolio gordinaren salneurria garestitzen hasi denez, bi adierazle horien arteko aldea zertxobait murriztu da eta azpiko inflazioa %0,8ra jaitsi da.

Kontsumoko prezioek erakutsi duten apaltzeko joerak Eurogunearekiko inflazio tarte gutxitzea ahalbidetu zuen eta bigarren hiruhilekoan tarte hori negatiboa izatera iritsi zen, EAEko tasa Eurogunearena baino txikiagoa izan zelako (%0,0 eta %0,2, hurrenez hurren). Prezioen doikuntza handiagoaren arrazoiak petrolioaren salneurriarekin du zerikusia, Euskadin Europako gainontzeko eremuan baino eragin handiagoa duelako. Arrazoi beragatik, prezio horiek abuztuan izan zuten gorakadak inflazio tarte iraultzeko balio izan du eta Europako inflazioa berriro kokatu da EAEkoaren zertxobait azpitik.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2007	2008	2009			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazioa guztira (%100)	2,8	4,1	0,9	0,0	-0,1	-0,1
Azpiko inflazioa (%83,7)	2,8	3,2	1,8	1,3	0,8	0,7
KPI Landutako elikagaiak (%12,9)	4,0	6,6	2,1	0,7	1,2	0,2
KPI Industriako ondasunak (%29,8)	0,7	0,6	-0,4	-0,5	-1,2	-0,4
KPI Zerbitzuak (%41,0)	3,9	3,9	3,4	2,8	2,2	0,9
Hondarreko inflazioa (%16,3)	3,0	8,5	-3,5	-6,1	-4,4	-0,8
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,0)	4,2	5,0	1,6	0,5	-0,2	0,0
KPI Energia (%9,3)	1,9	11,6	-7,9	-11,8	-8,6	-0,8

Iturria: INE.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2007	2008	2008	2009		
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	2,8	4,1	2,8	0,9	0,0	-0,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,8	6,3	3,3	1,7	0,1	-0,7
Edari alkoholodunak eta tabakoa	6,6	4,0	4,2	4,1	5,0	12,2
Jantziak eta oinetakoak	1,4	0,7	0,8	-1,6	-1,4	-1,9
Etxebizitza	3,6	6,4	7,2	5,3	2,0	0,3
Etxeko hornidura	3,5	3,0	3,1	2,2	1,9	2,4
Medikuntza	-0,5	-0,1	0,3	0,0	0,3	-0,4
Garraioa	2,3	5,7	-0,9	-6,5	-8,0	-5,9
Komunikazioak	0,2	0,0	-0,1	-0,5	-0,7	-0,7
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	1,2	0,8	1,6	-0,8
Irakaskuntza	4,5	4,7	5,1	4,9	4,9	5,0
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	4,6	4,6	3,3	2,5	2,1
Besteak	3,2	3,4	3,9	3,4	2,7	2,3

Iturria: INE.

Indize orokorra osatzen duten ekoizkin taldeen analisi zehatzak baieztatzen du prezioen beherakadak orokortzen hasi direla. Hain zuzen ere, abuztuan, hamabi taldeetatik seik aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten dagoeneko. Beste muturrean, edari alkoholodunak eta


tabakoa biltzen dituen taldeak %10etik gorako garestitzea izan zuen, tabakoaren zerga igoeraren ondorioz. Hezkuntzak ere urte arteko tasa positiboak eta tamaina handikoak (%5,0) jaso zuen, zerbitzuen arloko beste talde batzuek erakusten duten moteltasunetik osorik aldentuta. Hain zuzen ere, ostalaritzak eta besteak delako taldeak %2tik apur bat goragora mugatu dituzten beren gehikuntza tasak.

IPRIren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak

12. irudia

Indize orokorra



Energia



Iturria : Eustat.

Industria prezioen indizeak (IPRI), berriz, ezohiko balio apalak jaso zituen berriro, petrolioaren eta beste lehengaien salneurriak iazko udan zeudenak baino askoz ere txikiagoak direlako eta eskaria oso ahul dagoelako. Hain zuzen ere, 2008ko uztailan inoizko baliorik gorena (%9,6) jaso ondoren, urte arteko aldakuntza tasa nabarmen murriztu zen eta 2009ko abuztuan %-8,9an kokatu zen. Portaera hori orokorra izan zen osagaien artean, baina energiako ekoizkinen salneurriak beherakada garrantzitsua jaso zuen. Beste aldetik, azpimarratu behar da hilabete horretan talde guztiek aldakuntza tasa negatiboa izan zutela, salbuespen bakarra ekipamendurako ondasunak izan zirelarik.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008		2009	
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	4,0	6,6	4,6	-3,2	-7,3	-8,9
Kontsumoko ondasunak	4,1	4,4	3,5	1,8	0,2	-1,1
- Kontsumo iraunkorrak	1,4	3,1	3,6	1,9	0,2	-0,9
- Kontsumo iragankorrak	5,3	5,0	3,4	1,7	0,2	-1,2
Ekipamendurako ondasunak	3,9	3,0	3,0	2,1	1,7	1,4
Bitarteko ondasunak	6,0	4,2	5,0	-1,8	-8,2	-11,5
Energia	-1,4	20,0	6,5	-16,7	-20,6	-19,6

Iturria: Eustat.

Lan kostuei dagokienez, INEren inkestaren arabera, zortzi hamarren gutxiago hazi ziren aurreko hiruhilabetearen aldean, urte arteko aldakuntza tasa %3,6an kokatu arte. Adierazle horren bi osagaiek moteltzeko joera garbia erakutsi zuten bigarren hiruhilekoan, baina bereziki soldatakoak ez diren kostuek. Azkenik, lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerak %2,8an kokatu zen ekaina arte, 2008ko hilabete berean zegoen igoera baino 2,2 puntu txikiagoa delarik. Horiek horrela izanda, soldaten gehikuntzak aurtengo lehen hilabete hartu zuen moteltzeko joerari eusten dio, hilabetez hilabete aldakuntza gutxi jasota eta %3 inoiz gainditu gabe. Hala eta guztiz ere, deigarria da tamaina horretako soldata igoerak adostea, inflaziorik gabeko une batean eta lanpostu asko galtzen ari den momentu batean.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009(*)	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	4,7	5,7	6,3	5,3	5,4	4,4	3,6
- Soldata kostuak	4,8	5,9	6,4	5,9	5,4	4,5	3,8
- Bestelako kostuak	4,4	5,1	6,1	3,6	5,7	4,3	2,9
Kostu guztiak industrian	4,3	7,1	7,0	6,0	7,3	---	---
Kostu guztiak eraikuntzan	6,8	5,5	4,5	6,1	6,5	---	---
Kostu guztiak zerbitzuetan	4,7	5,3	6,5	5,1	4,8	---	---

(*) Seriearen haustura, oinarri urte berria 2008 delako eta seriea EJSN-2009ra egokitu delako.

Iturria: INE.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

19. TAULA

	2005	2006	2007	2008	2009(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,5	4,9	4,2	5,0	2,8
- Urtean zehar sinatutakoak	4,3	5,0	4,1	4,8	3,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,6	5,0	4,2	5,2	2,7
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,1	4,2	4,1	2,8

(*) 2009ko ekaina arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Ekonomiaren krisiak eragin handia dauka aurrekontuetako eragiketetan, 2009ko lehen sei hilabeterako argitaratu den informazioan hauteman daitekeenez. Ondoko taulatik azpimarratu behar da diru sarreren beherakada, bereziki sarrera arruntena, zergen bilakaerari oso lotuta baitaude. Orobat, gastuen gorakada ere garrantzitsua da, ekonomia sustatzeko onartu diren neurriengatik.

Zehazkiago adierazita, azken horien artean adierazi behar da kapitulu guztiek, salbuespen bakarra interesak izan direlarik, aurreikusitakoak baino aldakuntza tasa handiagoak jaso dituztela eta kapitaleko transferentzietan gehikuntza tasa oso garrantzitsua izan dela (%27,7), Tokiko Korporazioei, funtsak izan zitzaizuten eta ekonomia eta errentak sustatzeko aipatu diren neurriak bideratu ahal izateko, emandako ekarpenen ondorioz.

Diru sarrerei dagokienez, diru bilketaren beherakada orokorra baieztatuta geratu da. Sarreren jaitsiera zuzeneko zergetan (%-24,2) eta zeharkako zergetan (%-28,1) hauteman da. Enpleguaren galera garbiak eta enpresen mozkinen eta profesionalen diru sarreren jaitsierak zuzeneko zergak kaltetu dituzte eta familien kontsumoaren murrizketak, berriz, zeharkako zergetan izan du eragina.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2009ko urtariletik ekainera)

20. TAULA

Mila euro

	2008	2009	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	5.755.545	5.158.996	-10,4
2. GASTU ARRUNTAK	5.550.745	5.843.556	5,3
Langileen gastuak	1.059.695	1.131.830	6,8
Funtzionamenduko gastuak	1.396.256	1.598.942	14,5
Finantza gastuak	27.578	23.711	-14,0
Transferentzia arruntak	3.067.216	3.089.073	0,7
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	204.800	-684.560	---
4. KAPITALEKO SARRERAK	44.748	41.855	-6,5
5. KAPITALEKO GASTUAK	515.368	605.269	17,4
Inbertsio errealak	244.423	259.211	6,1
Kapitaleko transferentziak	270.945	346.058	27,7
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-470.620	-563.414	---
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA	-265.820	-1.247.974	---

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Izan ere, diru gehien biltzeko ahalmena duen zerga, hots, PFEZ zerga, askoz gutxiago bildu zuen aurtengo lehen zortzi hilabeteetan (%-17,1). Lanaren etekinen atxikipenak %-5,2 jaitsi ziren, epealdi berean galdu ziren lanpostuak baino apur bat gehiago bakarrik. Beste aldetik, kuota diferentzial garbia oso nabarmen igo zen, lan erretei ezarri zitzaizen 400 euroko aparteko kenketaren ondorioz. Finantza aktiboen balio galerak eragin kaltegarria izan zuen bai kapital higigarriaren atxikipenetan bai ondare irabazietan ere.

Zuzeneko beste zerga nagusiak, hots, sozietateen zergak, aurreko hilabeteetan erakutsitako joerari atxiki zion eta %30,2 gutxitu zuen bere diru bilketa, enpresen mozkinen beherakada nabarmenaren ondorioz. Zerga horren osagai esanguratsuen, hau da, kuota diferentzial garbia, %35,1 gutxitu zen. Beste aldetik, bi lurralde historikotan ondarearen zerga ezabatu denez, zerga horren bidez bildutako dirua oso nabarmen murriztu zen.

Zeharkako zergeri dagokienez, balio erantsiaren zergaren (BEZ) bitartez bildutakoak %29aren inguruko beherakada jaso zuen, hala bertan kudeatutako zergaren atalean nola Estatuarekin egiten den doikuntzan. Alde batetik, kontsumoaren jaitsierak eta higiezinaren salerosketak bildutako bolumenean eragina izan zuten. Beste aldetik, itzulketak lehenago bideratzen dira, luzapen asko onartu dira eta hilabeteko itzulketak orokortu dira. Hiru arrazoi horiek eragin

zuzena daukate diru bilketaren egutegian. Beste aldetik, atzerritik etorritako inportazioen murrizketa garrantzitsuak BEZaren doikuntzaren bitartez iristen diren diru sarrerak mugatu ditu.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2009ko urtariletik abuztura)

21. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2008	2009	Aurrekon. %	09/08 aldak. %
PFEZ	2.768.641	2.295.505	51,4	-17,1
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	2.926.484	2.774.474	62,7	-5,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	209.647	186.222	52,6	-11,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	47.555	57.027	81,4	19,9
- Ondare irabazien atxikipenak	23.534	13.189	31,9	-44,0
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	132.598	122.314	69,4	-7,8
- Kuota diferentzial garbia	-571.176	-857.720	---	-50,2
Sozietateen gaineko zerga	1.530.071	1.067.267	86,9	-30,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	209.647	186.222	52,6	-11,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	47.555	57.027	81,4	19,9
- Ondare irabazien atxikipenak	23.534	13.189	31,9	-44,0
- Kuota diferentzial garbia	1.249.335	810.830	---	-35,1
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	110.768	59.631	34,9	-46,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	54.455	48.040	55,1	-11,8
Ondarearen gaineko zerga	180.405	48.628	1064,1	-73,0
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	4.644.340	3.519.071	54,3	-24,2
BEZaren bertoko kudeaketa	2.211.226	1.567.766	41,9	-29,1
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	133.956	104.092	45,3	-22,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	78.589	61.567	45,8	-21,7
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	36.107	22.820	41,9	-36,8
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	878.003	836.852	52,8	-4,7
Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	40.301	37.005	65,8	-8,2
Aseguru sarien gaineko zerga	47.741	44.546	53,6	-6,7
Iraungitako zergak	46	---	---	-99,7
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.425.970	2.674.646	45,4	-28,1
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	61.467	47.782	43,0	-22,3
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	8.131.777	6.241.499	50,0	-23,2
BEZaren doikuntza	569.791	404.396	33,2	-29,0
Zerga berezien doikuntza	-72.380	-76.785	---	-6,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	8.629.188	6.569.110	48,3	-23,9

Iturria: Foru Aldundiak.

Azkenik, ekoizpeneko zerga bereziak dira krisiari aurre egiten diotenak, %4,7 baino ez baitira murriztu. Talde horretan, azpimarratu behar da pisu gehien duen zergak, hots, hidrokarburoen gainekoak, izan duen beherakada garrantzitsua, erregaien kontsumoa, ekonomia jardueraren ahultasunaren ondorioz, jaitsi delako, batez ere garraioaren atalean. Zeharkako gainontzeko zergek diru biltzeko ahalmen txikiagoa dute, baina tamaina handiko murrizketak jaso dituzte haiek ere. Nabarmendu behar da ondare transmisioen zergarena (%-22,3), bigarren eskuko etxebizitzaren salmentak ezagutu duen jaitsierarengatik.

Finantza arloa

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, finantza merkatuek martxoan hasitako susperraldiari jarraipena eman zioten, aurreko hilabeteetan nagusi izan zen ezegonkortasunetik eta zurrumbiloeetatik aldenduta. Merkatuek normaltzeko joera hartu zuten eta burtsek gorabeherak leundu zituzten. Konfiantzaren hobekuntzak finantzaziorako baldintza hobeak eta finantza fluxuen nolabaiteko bizkortzea ekarri zituen.

Gobernuek eta banku zentralak sustapen eta laguntza makroekonomikoko neurriak zabaldu zituzten eta nahi beste likidezia ematen jarraitu zuten. Hain zuzen ere, EBZk %1eko tasa finkoko mugarik gabeko lehen enkantea egin zuen, inolako saririk sartu gabe eta 442.000 milioi euroko bolumenarekin, inoizko injeziorik handiena baita. Aldi berean, aktiboak erosteko egitasmo bati ekin zion. Egitasmo horren bitartez, 2009 eta 2010 urteetan 55.000 milioi euroko hipoteka zedulak erosi nahi ditu.


Ingalaterrako Bankuak, berriaz, %0,5ean utzi zuen bertako interes tasa, inolako aldatetarik gabe, eta 205.000 milioi eurora zabaldu zuen zorra erosteko bere egitasmoa. Atlantikoaren beste aldean ere egonkortasunak bere horretan jarraitu zuen. Erreserba Federalak ez zuen aldatu esku hartzeko tasa eta %0 eta %0,25eko tartean utzi zuen. Halaber, aditzera eman zuen ekonomiaren egoerak justifikatzen duela interes tasen ezohiko maila apala luzaz irautea, beharbada 2010. urte hasiera arte. Gainontzeko banku zentral nagusiek bezala, Erreserba Federalak ere egitasmo bat garatu zuen ekonomiaren suspertzean laguntzeko. Hain zuzen ere, kredituen kostuak merkatzeko asmoz, 237.000 milioi dolar erosi zituen Altxorreko bonotan. Ekintza hori bilioi bat dolarretik gorako balioa duten aktiboak erosteko egitasmo baten barruan kokatzen da.

Aipamen berezia merezi dute Suediako Banku Zentralak hartu dituen neurriak, interes tasa %025era jaisteaz gain, eta neurri hori kreditua suspertzeko nahiko izango ez zelakoan,

gordailuen tasa %-0,25era beheratu zuen. Erabaki horren ondorioz, Suediako bankuek ordaindu beharko dute banku zentrolean bere gordailuak uzteko, dirua jaso beharrean, ohiko praktikak erakusten duenaren aurka, beraz. Neurri horren ondorioz, gordailuak beste bankuetan egingo direla espero da, azken hauen kapitala sendotuz, bankuen arteko interes tasa hobetuz eta finantza krisiari berme gehiagorekin aurre egiteko aukerak handituz.

Banku zentraletako erreferentzia tasak
Ehunekoak

13. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.


Aurtengo bigarren hiruhilekoan bizi diren gorabeherak oso handiak izan diren arren, euroa oso sendo mantendu zen gainontzeko dibisen aurrean. Hain zuzen ere, ekainaren hasieratik

uztailaren amaiera arte, euroaren balioa %3,0 igo zen dolarraren aldean eta irailaren 22an truke tasa ia 1,48 dolarretara iritsi zen. Portaera horrek erakusten du arriskuak hartzeko beldurra zertxobait leundu zela eta garapen bidean dauden herrialde batzuetan dolarraren papera erreserbako diru gisa zalantzan jarri dela. Yenarekiko truke tasa ere bide beretik joan zen. Europar txanponaren balioak goranzko norabide leuna hartu zuen japoniar diruaren aldean eta 2008. urteko amaieran izan zuen balio galera garrantzitsuaren zati bat berreskuratzea lortu zuen.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

14. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.

Erresuma Batuen datu ekonomikoak txarrak izan arren eta bertako gobernuan dimisioak aurkeztuko zirelako zurrumurruak agertu arren, euroak ezin izan zuen libera esterlinaren aldean balioa sendotu eta zertxobait egin zuen atzera. Hala ere, eta urteko balio metatuan euroak 2009ko hasieran lortutako gehienezko kotizazioaren aldean ia %7 galdu bazuen ere, zeinetan bi txanponen arteko truke tasa ia paritatera iritsi baitzen, gaur eguneko truke tasa historian ezagututako gorenetakoa da. Kotizazioaren azken datuek, abuztukoek eta irailekoek, ez dute gorabehera handirik erakusten bi txanpon horien truke tasan eta horrek adierazten du merkatuek gaur eguneko unea ondo ordezkatzan duten kotizazioak eskaintzen dituztela, eta horrela jarraituko duela ekonomiaren datu berriak ezagutu arte.


Burtsa merkatuak argitaratu ziren datu ekonomikoen arabera mugitu ziren. Ekainean eta uztailan izan zuten geldotasunaren ondoren, ekonomiaren adierazle nagusien emaitzak ezagutu ziren heinean, munduko osoko burtsek balioa irabazteari ekin zioten berriro. Zehazkiago adierazita, espainiar burtsa 11.700 puntuetatik gora kotizatzen iritsi zen eta Eurostoxx 2.800etatik gora, Eurogunean lortutako konfiantzari eta petrolioaren garestitzeari esker. Atlantikoaren beste aldean, antzeko bilakaera ona ezagutu zen. Ben Bernanke helarazi zuen baikortasunez beteriko mezuak, zeinean munduko ekonomia krisitik ateratzen ari zela baieztatu baitzuen, erreferentziako indize nagusi guztiak gehienezko balioetan jartzea lortu zuen.

Interes tasen bilakaera


15. irudia

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.


Garapen bidean dauden herrialdeetan, errenta aldakorrek merkatuek suspertzeko ahalmen harrigarria erakutsi zuten. Zorpetze maila txikiagoa izanda eta finantza arloaren arazoez gutxiago kaltetu dituzenez, neurriak hartzeko aukera handiagoak izan zituzten. Hori dela eta, indize gehienek %30 baino gehiago irabazi zuten urteko lehen erdian.

Bankuen arteko interes tasek, berriz, gutxitzen jarraitu zuten. Hain zuzen ere, euriborra abuztuan %1,0aren eta %1,4aren azpitik kokatu zen, hurrenez hurren, hiru eta hamabi hilabeteko epe muga duten tasetan. Halaber, irailaren amaieran historiako mailarik apalena markatu zuen urtebeterako euriborrak, %1,25aren azpitik kokatuta. Azken urtebetearen euriborra lau puntutan jaitsi bada ere, beherapen hori ez da osorik igaro kontsumitzaileen tasetara, zeren eta hala bankuek nola aurrezki kutxek ematen dituzten maileguen diferentziala areagotu dute, ez ordaintzeko arrisku saria handiagoa delako. Beste aldetik, EBZk egin zituen munta handiko likidezia sartzeak ez dirudi finantza erakundeek ematen duten kredituaren bolumena igotzeko erabili denik, gordailuaren erraztasun marjinalak, hots, egun baterako eginiko gordailuek lortzen duten berariazko interes tasa- izan zuen gehikuntza handiak frogatzen duenez, 12.000 milioietatik 315.000 milioietara igaro baitzen ekainaren azken egunetan, EBZk egin zuen urtebeterako enkantearen ondoren.


Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

16. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Egoera horren ondorioz, kreditu pribatuen murrizketaren erritmoa areagotu ez ezik, gutxienez hogeita hamar urtean lehen aldiz kreditua jaitsi egin zen eta %-1,2an kokatu. Beherakada horrek batez ere hipoteken kredituaren jaitsiera garrantzitsua islatu zuen, baina kontsumorako kreditua ere oso nabarmen moteldu zen. Hala ere, hori ez zen izan finantza arloaren kezka bakarra, berankortasuneko tasak berriro gorantz egin zuelako. Higiezinen arloak, oraingo krisiak gehien kaltetu duen sektoreetako bat baita, gorantz bultzatu zuen berankortasuna, bereziki etxebizitzaren enpresa sustatzailek kredituak ordaintzen ez zituztelako. Are gehiago, berankortasuna %2,53ra (oraingoz oso altua ez den maila batera) hazi zen bitartean, estaldura tasak okerrera egin zuen. Ekainaren amaieran, ordaindu gabeko kredituak estaltzeko funtsak %83,54an kokatu ziren, aurreko hiruhilabeteko estaldura tasaren hiru hamarren bakarrik beherago, baina 2008ko epealdi berean zegoen %161,95etik askoz ere beherago.

Azken hilabeteetako egoera ekonomiko txarrak finantza erakundeak gordailuak lortzea zaildu du. Enpresek eta familiek baliabide gutxiago dituzte, langabezia handitzen ari delako eta jarduera murrizten ari delako. Beraz, gordailuen kopurua %8,1 hazi ziren, azken hiru urteko erritmorik apalena baita.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Munduko ekonomia atzeraldi sakon batean dago sartuta 2007ko laugarren hiruhilabetetik, kreditu globalaren murrizketak eraginda eta ekonomia erreala bat-batean geldiarazi zuena. Mundu osoko ekonomiek beren hazkunde tasak gutxitu zituzten eta finantza arloko krisia Amerikara, Europara eta Asiara hedatu zen. Atzeraldi horrek jarraipena izan du 2009. urteko lehen hilabeteetan, nahiz eta bizitasun gutxiagorekin. Ekonomia nozitzen ari den krisiaren une larriena, beharbada, atzean geratu da dagoeneko, baina gogoz espero den susperraldia oraindik oso urrun egon daiteke.

Ekonomia politikaren arduradunek neurri garrantzitsuak ezarri dituzte zerga eta moneta alorretan, ekonomia eragileentzat pizgarria izan direnak. Banku zentralak, berriz, interes tasak jaitsi dituzte eta dirua sartu dute ekonomian. Neurri horiek ez balira hartu, krisiaren kalteak are okerragoak izango ziren.

Munduko barne produktu gordina 2009. urtean %-1,1aren inguruan murriztuko dela aurreikusten da, baina 2010ean suspertuko dela. Beste aldetik, langabezia oso azkar igo da mundu osoan eta 2009an eta 2010ean gehiago okertuko dela espero da. Munduko merkataritzaren fluxuek bi zenbakiko beherakada izango dute 2009an eta esportazioen mendean hazten diren herrialdeek zailtasunak izango dituzte oparoaldiko azken urteetan jaso zuten gehikuntza tasetara itzultzeko.

Atzeraldiko hainbat hilabeteren ondoren, estatubatuar ekonomia hasi da hobekuntzako eta okertzeko zantzuak aldi berean erakusten, baina, oro har, susperraldia martxan dagoela onartzen hasi da. Gaur egun zaila da zehaztea zikloaren jaitsiera noiz amaituko den eta susperraldia nola hasiko den. Beraz, ekonomiaren onbideratzeaz egiten diren aurreikuspenak kontserbadoreak dira, nahita.

AEBetarako hazkunde aurreikuspenek iragartzen dute ekonomia hori %-2,7 murriztuko dela 2009. urtean eta %1,5aren inguruan haziko dela 2010. urtean. Inflazioak, beharbada, ez du arazorik sortuko epe laburrean, baina energiaren garestitzea kezka iturria izan daiteke. Moneta politika eratzekeo ardura dutenek onartzen dute inflazioa berriro agertzeko arriskua dagoela, azken hiruhilekoetan abiarazi diren neurrien ondorioz, baina lehentasuna ekonomiaren hazkundera berreskuratzea eta finantza arloa onbideratzea da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

22. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG				Inflazio tasa	
	Aurreikuspenak		Aurreko txostenarekiko aldea		Aurreikuspenak	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Munduko Ekonomia	-1,1	3,1	0,3	0,6	---	---
AEB	-2,7	1,5	-0,1	0,7	-0,4	1,7
Kanada	-2,5	2,1	-0,2	0,5	0,1	1,3
Japonia	-5,4	1,7	0,6	---	-1,1	-0,8
Eurogunea	-4,2	0,3	0,6	0,6	0,3	0,8
Europar Batasuna	-4,2	0,5	0,5	0,6	---	---
Alemania	-5,3	0,3	0,9	0,9	0,1	0,2
Espainia	-3,8	-0,7	0,2	0,1	-0,3	0,9
Frantzia	-2,4	0,9	0,6	0,5	0,3	1,1
Herbehereak	-4,2	0,7	---	---	0,9	1,0
Italia	-5,1	0,2	---	0,3	0,7	0,9
Erresuma Batua	-4,4	0,9	-0,2	0,7	1,9	1,5
Errusia	-7,5	1,5	-1,0	---	12,3	9,9
Txina	8,5	9,0	1,0	0,5	-0,1	0,6
India	5,4	6,4	---	-0,1	8,7	8,4
Argentina	-2,5	1,5	-1,0	0,8	5,6	5,0
Brasil	-0,7	3,5	0,6	1,0	4,8	4,1
Txile	-1,7	4,0	-1,8	1,0	2,0	2,3
Venezuela	-2,0	-0,4	0,2	0,1	29,5	30,0

Iturria: NDF (2009ko urria).

AEBetako familien gastua ekonomiak etorkizunean izango duen bilakaeraren giltzetako bat da. Faktore askoren eraginez bertako familiak egoera zailean daude. Alde batetik, enpleguak behera egin du atzeraldia 2007ko amaieran hasi zenetik eta lanpostuen galerak 2010. urtean ere jarraituko du. Beste aldetik, finantza sarreraren beherakadak eta aberastasun efektu negatiboak kontsumitzaileen konfiantza narriatu dute. Gobernuaren pizgarri egitasmoen esker, kontsumoa suspertuko dela eta jaitsiera biziko epealdi hau amaitutzat joko duela espero da.

Asiarako aurreikuspenak onak dira, Txinak eta Indiak gaur eguneko krisi ekonomikoari arrakastaz aurre egin diotelako. Ereduak, oro har, hazkunde positiboa lortuko du 2009. urtean, baina zehaztasunak egin behar dira. Txinan eta Indian hazkunde tasa sendoak espero diren bitartean, oso bestelakoa izango da Japoniako, Hego Koreako eta Taiwaneko egoera. Asiako hazkundera garrantzitsua izango da, baina aurreko urteetako baino txikiagoa. Eredu


horretako arazo nagusia esportazioekiko duten mendekotasuna da, munduko merkataritzaren bolumena oso bizkor murrizten ari den testuinguru batean. Horrek kalte egingo die enpresen inbertsioari eta lan merkatuari Asiako herrialde guztietan. Aurreko garaietan, ekonomiaren susperraldia esportazioen hazkundean oinarritu dira, baina hori ez da berriro gertatuko 2010. urtea iritsi arte, eta oso poliki gertatuko da.

BPGren bilakaera eremuka


17. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina



Iturria : NDF. 2009ko urriko aurreikuspenak.

Bitartean, Txina abantailako egoera batean dago gainontzeko herrialdeekiko eta azken urteetan hazkunde tasa altuak jasotzera ohitu da. Hori dela eta, %8,0ko helburuari eusten dio 2009. urterako. Gobernuak iaz abian jarri zituen pizgarrien multzoak emaitza onak ekarri dituela ematen du. Hala eta guztiz ere, esportazioen galga, goranzko langabezia eta industria ekoizpenaren jaitsiera kezkatzeko arrazoiak dira. Txinarekin merkataritzako harremanak dituzten herrialdeen eskari ahula da Asiako erraldoi horren ekonomia hazkunde sendoak duen zailtasun behinena.

Merkataritzako salerosketen jaitsierari aurre egiteko, Txinako Gobernuak inbertsio publikoaren tamaina handiko gorakada batekin erantzun zuen. Azken urteetako zerga diziplinak bide eman dio txinatar Gobernuari azpiegiturako egitasmo publiko erraldoiak finantzatu ahal izateko. Txinak gaur eguneko egoeran daukan beste abantaila handia da bertako finantza erakundeek ez dutela nozitu arloaren krisi orokorra.

Indiak ere aurre egin die mundu osoko ekonomietan agertu diren zurrunbiloei. Esportazioak eta industria ekoizpena kaltetuta atera dira, baina herrialde hartako ekonomia, Asiako herrialde gehienak ez bezala, ez da esportazioetan horrenbeste oinarritzen. Ekonomia eragileak baikorrak dira eta datozen urteetarako hazkunde aurreikuspenek %5,0 gaitzen dute, inbertsioak areagotuko diren eta kreditu merkatuek ezin hobeto lan egiten duten testuinguru batean.

2009. eta 2010. urteetan, Indiako ekonomiak aurre egin beharko dio esportazio ahuleko egoera bati eta horrek arazoak ekar diezazkioke industria arloari. Beste erronka bat Gobernuak zerga politikan duen margen txikia da. Indian dagoen aurrekontu defizit handiak ez dio inolako aukerarik uzten Gobernuari zerga pizgarriak abiarazteko. Halaber, ekonomiak arazo larriak izan ditzake nekazaritza industrian, herrialde horretan oso arlo garrantzitsua baita. Montzoi garaiaren eguraldi baldintza txarrek dagoeneko garestiak diren elikagaien salneurriak gorarazi ditzakete eta Gobernuak nekazariak laguntzeko erabiltzen duen gastua igoarazi. Emaitzak nekazaritzako industriaren etorkizuna baldintzatuko du, baina baita Indiako ekonomiaren hazkunde osoarena.


Japoniako ekonomiaren abiapuntua AEBena, Txinarena eta Europako herrialde gehienena baino okerragoa da. Munduko bigarren ekonomiak jaitsierak pilatu ditu azken lau hiruhilabeteetan eta historia modernoaren atzeraldirik larriena nozitzen ari da. Japoniaren arazoen eragile behinena esportazioen mendekotasuna da, eta barne eskaria ez da gai atzerriko eskariaren okertzeak sortu dituen eragin negatiboak konpentsatzeko. Barne kontsumoak eta inbertsioak okerrera egin dute etengabe azken hiruhilabeteetan. Industriaren erabilera

ahalmena ezohiko maila apaletan daude. Datozen hilabeteetan, Gobernuak bideratu dituen zerga pizgarrien onurak nabaritu beharko dira.


Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

18. irudia

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Eurogunean, barne produktu gordinaren jaitsiera eragin duten faktore nagusiak inbertsioen, esportazioen eta izakinen aldakuntzaren beherakadak izan dira. Izan ere, barne eskariaren murrizketa hamabost urteko handiena izan da. Europako gobernuek ere arazoak dituzte finantza publikoetan. 2009. urterako, Europar Batasuneko aurrekontuaren defizita aurreko urtekoaren bikoitza izango dela aurreikusten da. Goranzko joera horrek 2010. urtean ere jarraituko du. Egoera hau ekarri duten baldintzak atzeraldia bera eta ekonomiaren atzeraldia kalteak gutxitzeko europar gobernu zenbaitek martxan jarri dituzten pizgarri askoko paketeak dira. Ekonomiaren uzkurduraren ondorioz, Europako Banku Zentralak interes tasak %1,0ra jaitsi ditu eta ez dirudi murrizketa gehiagorik erabakiko duenik.

Egin dituzten aurreikuspenek adierazten dute Eurogunearen barne produktu gordina %-4,3an kokatuko dela aurten eta zertxobait hobetuko dela 2010. urtean, %0,6ra arte. Ekonomiaren aztertzaile gehienek ez dute uste Europar Batasunaren ekonomia 2010eko amaiera baino lehenago suspertuko denik.

Alemaniar dagokionez, esportazioak, duela gutxi arte bertako ekonomiaren bultzagile nagusia izan baita, hondoratu egin dira atzeraldi ekonomiko globala hasi zenetik. Alemaniak onura handiak lortu zituen garapen bidean dauden merkatuekin (bereziki Ekialdeko Europarekin) kapitaleko ondasunetan egin zuen merkataritzari esker, arlo horretan alemaniarren lehiakortasunak abantaila ematen dielako. Finantza krisia oso kaltegarria izan da, kapitaleko ondasun gehienak kredituen bitartez finantzatzen direlako. Hala ere, ekonomiaren azken adierazle batzuek iradokitzen dute alemaniar ekonomiak atzean utzi duela okerreana. Munduko esportatzaile nagusia eta Europako ekonomiarik handiena 2009. urtean %-5,8 haziko dela espero da eta susperraldi arina lortuko duela 2010ean.

Frantziako ekonomian, berriz, hazkunderako pizgarri garrantzitsuak ezarri ziren 2009ko lehen erdian. Frantzia Europako beste herrialde batzuk baino egoera hobean dago. Kontsumoan eginiko gastuak gora egin zuen 2009ko lehen hiruhilekoan eta frantziar kontsumitzaileek joera horri eutsi diote aurtengo bigarren hiruhilekoan ere. Bertan ere, badirudi atzeraldiak hondoa jo duela.

Espainiako ekonomiarentzat egin diren aurreikuspenek atzeraldi sakona iragartzen dute 2009. urterako, hazkunde tasa %-3,8an kokatuko baita. Ekonomia erakunde gehienek aurreikusten dute ekonomiak hondoa 2009ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean joko duela eta une horretatik aurrera susperraldi arin bati ekingo diola. Hala ere, ez hazkunde tasa positiborik espero 2010eko amaiera arte edo 2011ko lehen hilabeteak arte.

Espainiako barne produktu gordinaren 2009ko jaitsiera barne eskariaren osagai guztien murrizketaren ondorioa da, salbuespen bakarra administrazio publikoen kontsumoa delarik. Barne eskariaren beherakada hori kanpo arloaren hobekuntzak neurri batean leunduko du. Eskaintzaren ikuspegitik, hazkunderaren aurreikuspenak beherantz eramaten dituzten arloak eraikuntza eta industria dira.

Lan merkatuaz egin diren aurreikuspenak are ezkorragoak dira eta jardueraren jaitsierak enpleguan izango duen eragina oso handia izango da. Funcasek biltzen dituen adituen multzoaren aurreikuspenen arabera, langabezia tasa %18,4ra iritsiko da 2009. urtean eta %20,4ra igoko da 2010ean.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2009ko iraila)
23 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoan eta bestean	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
AFI	-3,6	-0,6	-5,5	-2,2	5,1	2,6	-16,3	-7,5	-11,7	-6,2	-27,9	-12,6
BBVA	-3,5	-0,7	-4,0	0,0	3,3	2,4	-13,9	-9,0	-9,1	-6,2	-26,1	-15,0
Caixa Catalunya	-3,8	-0,9	-5,1	-1,3	5,1	2,2	-15,6	-4,2	-11,1	-4,5	-25,9	-6,4
Caja Madrid	-3,9	-1,1	-5,7	-3,7	4,8	3,6	-16,2	-6,2	-11,1	-5,4	-26,6	-9,2
Cemex	-4,0	-0,6	-5,7	-1,0	3,8	2,7	-15,3	-2,9	-10,9	-4,2	-23,2	-1,2
CEPREDE-UAM	-3,6	-0,3	-5,3	-1,4	5,2	4,0	-15,4	-3,2	-10,7	-1,2	-26,6	-5,7
FUNCAS	-3,8	-1,0	-5,1	0,1	4,3	1,5	-15,8	-10,2	-11,4	-12,5	-26,7	-7,9
ICAE-UCM	-3,8	-0,9	-5,1	-0,8	4,4	1,3	-15,5	-6,5	-11,6	-8,8	-25,0	-4,3
IEE	-3,7	-1,1	-4,0	0,0	4,5	3,0	-15,4	-9,2	-15,0	-9,0	-20,0	-12,0
IFL-UC3M	-3,9	-1,1	-4,8	-0,1	5,1	4,1	-15,0	-9,2	-11,1	-9,3	-25,3	-17,5
Intermoney	-3,5	0,6	-4,8	0,4	4,5	2,0	-15,6	-4,2	-11,2	-4,2	-26,0	-2,2
La Caixa	-3,7	0,0	-3,1	0,3	4,3	2,4	-15,4	-5,4	-14,2	-6,9	-22,2	-8,0
Repsol	-3,8	-1,0	-5,1	-0,8	5,1	2,6	-15,6	-6,7	-11,3	-6,8	-26,2	-7,0
Santander	-3,7	-0,4	-4,7	-1,1	6,0	2,2	-14,1	-5,5	-9,0	-5,7	-23,4	-8,1
Batez bestea	-3,7	-0,6	-4,9	-0,8	4,7	2,6	-15,4	-6,4	-11,4	-6,5	-25,1	-8,4
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-06)	-3,6	-0,3	-4,1	-0,4	2,9	1,8	-14,1	-4,5	----	----	----	----
Esp. Bankua (2009-04)	-3,0	-1,0	-3,1	-0,4	3,5	2,1	-15,1	-10,3	-12,9	-11,6	-24,3	-12,6
E. Batzord. (2009-05)	-3,7	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
NDF (2009-04)	-4,0	-0,8	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2008-11)	-4,2	-0,9	-4,4	-1,1	----	----	-13,5	-4,6	----	----	----	----

Iturria: Funcas.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2009ko iraila)

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
AFI	-6,8	-2,5	-14,1	-0,8	-21,5	-8,4	-0,2	1,6	-6,3	-2,9	18,3	20,9
BBVA	-5,5	-1,5	-19,5	0,3	-22,9	-4,4	-0,2	1,0	-6,0	-2,5	18,2	20,7
Caixa Catalunya	-5,9	-1,4	-14,5	-2,7	-20,1	-4,9	-0,2	1,4	-6,5	-0,8	18,2	19,6
Caja Madrid	-6,6	-2,7	-13,9	0,3	-20,0	-5,5	-0,1	1,5	-6,5	-1,9	18,3	20,5
Cemex	-6,7	-0,7	-13,9	0,9	-19,4	0,2	-0,2	1,8	-8,5	-3,0	20,0	23,0
CEPREDE-UAM	-6,2	-0,7	-12,1	1,6	-18,8	-0,3	0,0	2,1	-6,2	-1,7	18,2	20,3
FUNCAS	-6,2	-1,9	-14,1	2,0	-20,2	-1,9	-0,2	1,8	-6,6	-2,8	18,3	20,5
ICAE-UCM	-6,4	-1,8	-13,8	0,5	-20,7	-3,5	-0,1	1,6	-6,8	-1,8	18,5	19,9
IEE	-6,1	-2,2	-10,0	-2,0	-15,0	-5,0	0,5	1,2	-5,0	-2,0	18,0	20,0
IFL-UC3M	-6,1	-2,0	-15,0	-3,1	-19,0	-5,5	-0,2	1,6	-6,6	-2,3	18,3	20,9
Intermoney	-6,1	-0,4	-13,2	4,8	-19,7	0,5	-0,4	1,8	-6,2	-0,4	18,1	19,3
La Caixa	-5,1	-0,7	-14,4	1,8	-17,0	-1,0	-0,1	1,6	-6,6	-1,4	18,2	19,3
Repsol	-6,0	-1,7	-12,1	4,0	-18,0	0,6	-0,2	1,6	-6,3	-3,0	18,4	20,0
Santander	-5,1	-1,4	-13,6	3,3	-16,3	-0,9	-0,2	1,8	-6,6	-2,8	18,3	20,9
Batez bestea	-6,1	-1,5	-13,9	0,8	-19,2	-2,9	-0,1	1,6	-6,5	-2,1	18,4	20,4
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-06)	-5,7	-1,0	-16,2	2,1	-20,5	-0,6	----	----	-5,9	-1,7	17,9	18,9
Esp. Bankua (2009-04)	-5,3	-2,4	-8,9	2,9	-15,1	-2,6	0,2	1,5	-5,2	-2,1	17,1	19,4
E. Batzord. (2009-05)	----	----	----	----	----	----	0,0	----	----	----	----	----
NDF (2009-04)	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2008-11)	-5,6	-1,2	-22,8	-1,3	-24,0	-2,1	-0,1	0,3	----	----	18,1	19,6

Iturria: Funcas.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2009ko iraila)

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-4,0	-3,1	-3,6	-1,6	-0,4	0,2	0,7	-0,3
Kontsumo pribatua	-5,6	-4,8	-5,3	-3,0	-1,7	-0,7	0,0	-1,4
Kontsumo publikoa	4,8	4,6	5,2	4,3	4,1	3,8	3,6	4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-15,9	-13,2	-15,4	-7,6	-3,7	-1,4	0,4	-3,2
- Inbertsioa ekipamenduan	-28,8	-24,5	-26,6	-12,7	-6,6	-2,4	-0,3	-5,7
- Inbertsioa bestelakoetan	-14,3	-12,3	-14,1	-9,4	-6,7	-5,2	-3,6	-6,3
- Inbertsioa eraikuntzan	-10,7	-8,6	-10,7	-5,0	-1,7	0,2	2,0	-1,2
Barne eskaria	-6,6	-5,3	-6,2	-2,8	-1,0	0,2	1,0	-0,7
Esportazioak	-11,4	-3,0	-12,1	0,9	1,4	1,8	2,1	1,6
Inportazioak	-18,4	-10,7	-18,8	-4,5	-1,5	1,2	3,4	-0,3



Iturria: CEPREDE.

Espainiar ekonomia sartuta dagoen ekonomia atzeraldiak hainbat desoreka zuzentzeko baliagarria izan daiteke, hala nola prezioen bilakaeran Eurogunearekin bat egiteko edo enpresen eta familien zorpetze maila murrizteko. Beste aldetik, defizit publikoa modu garrantzitsu batean areagotuko da, ekonomiaren atzeraldiaren ondorioz diru sarrera publikoak gutxituko direlako eta gastu publikoa haziko delako, krisiaren kalteei aurre egiteko ezarri diren neurrien kostuarengatik.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak

19. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Eustatek argitaratzen duen hiruhilabetekako kontabilitatea ezagututa, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarako eta 2009-2010 epealdirako aurreikuspenak eguneratu ditu. Gaurkotze horren ondorioz, barne produktu gordinaren beherakada udaberrian espero zena baino puntu erdi bat handiagoa izango dela aurreikusten da orain. Hain zuzen ere, urteko batez bestea %-2,9an egon daiteke. Hala ere, ia ez dago aldaketarik 2010rako aurreikuspenean, orain %-0,8an kokatzen baita, aurreko aurreikuspenetik hamarren bakar batera. Oro har, hiruhilabetekako bilakaerak adierazten du atzeraldiaren une larriena aurtengo bigarren hiruhilekoan gertatu zela, baina hemendik aurrera jaitziera tasak txikiagoak izango direla. Dena dela, BPGren hazkunde positiborik ez da espero erreferentziako epealdi osoan (2009-2010 bi urtean).

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2009ko urria) 26. TAU

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-2,5	-3,6	-3,0	-2,4	-2,9	-1,7	-1,1	-0,7	-0,1	-0,8
Azken kontsumoa	-2,0	-2,9	-2,8	-2,3	-2,5	-1,5	-0,8	-0,6	-0,3	-0,8
Kontsumo pribatua	-3,7	-4,6	-4,0	-3,4	-3,9	-2,3	-1,4	-1,1	-0,7	-1,4
Kontsumo publikoa	4,5	3,7	2,5	2,1	3,2	2,1	1,8	1,4	1,4	1,7
Kapital eraketa gordina	-6,8	-9,1	-7,6	-6,9	-7,6	-6,3	-5,8	-4,7	-3,0	-5,0
Barne eskariaren ekarpena	-3,5	-4,8	-4,2	-3,8	-4,1	-2,9	-2,2	-1,9	-1,0	-2,0
Kanpo saldoaren ekarpena	1,0	1,2	1,2	1,3	1,2	1,3	1,2	1,3	1,0	1,2
Lehen arloa	17,2	9,9	6,6	3,8	9,4	6,3	7,2	5,1	2,0	5,1
Industria	-8,6	-10,0	-7,5	-6,0	-8,0	-4,5	-3,3	-1,5	-0,7	-2,5
Eraikuntza	-4,8	-5,2	-5,2	-4,9	-5,0	-4,0	-3,7	-3,3	-2,7	-3,5
Zerbitzuak	0,5	-0,5	-0,3	-0,1	-0,1	0,0	0,1	0,1	0,4	0,2
Balio erantsi gordina	-2,4	-3,6	-2,9	-2,3	-2,8	-1,7	-1,2	-0,6	-0,2	-0,9
Ekoiizkinen g. zerga garbiak	-3,6	-4,0	-3,7	-3,0	-3,6	-2,1	-1,7	-1,5	-0,7	-1,5
BPGren deflatoarea	0,8	0,1	1,3	1,8	1,0	1,8	1,9	1,9	1,9	1,9
Enplegua	-2,9	-4,0	-3,4	-2,9	-3,3	-2,5	-2,1	-1,8	-1,0	-1,9
Langabezia tasa	7,7	7,8	8,1	8,6	8,1	9,0	9,2	9,4	9,4	9,3

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Eskariaren ikuspegitik, barne eskaria hobetuko dela eta kanpo saldoaren ekarpena bere horretan mantenduko dela aurreikusten da. Kontsumoaren murrizketa garrantzitsua izango da

datozen hiruhilekoetan ere. Are gehiago, murrizketa hori familiek gastatzeko duten ahalmena baino handiagoa izango da, enpleguaren bilakaera eta langabeziari ematen zaizkion diru laguntzak kontuan hartuta, azken hauek familia kaltetuenen erosteko ahalmena neurri batean mantentzen laguntzen dutelako. Izan ere, familiek errenta erabilgarriaren zati handiago bat aurrezteko autua egin dute, kontsumoaren kaltetan. Igurikimen ezkorrek gastua jaitsarazten dute. Hala ere, egoera hori 2010. urtean osorik aldatuko dela aurreratzen da, eta orduan kontsumoa enplegua baino gutxiago murriztuko dela, ekonomiaren bilakaeraz konfiantza berreskuratzen den heinean.

Datozen hiruhilekoetan ere inbertsioa izango da gehien jaitsiko den osagaia eta bere susperraldia oso luzea izango dela aurreikusten da. 2010. urte osoan %5 murriztuko da batez beste. Etxebizitzetan eginiko inbertsioan ez da suspertzeko zantzu garbirik hautematen eta ekipamendurako ondasunen produkzioa –ekoizteko inbertsioari lotuta baitago- oso maila apaletan dago.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizteko arloen ikuspegitik, industriak bigarren hiruhilekoan hondoa jo duela (%-10,0) eta joera aldaketari astiro ekin diola pentsatzen da. Arlo horren etorkizuna Euskadin oso lotuta dago harreman estuena duen herrialdeetan (Estatuko gainontzeko erkidegoetan, Alemanian eta

Frantzian) gertatuko denari, eta azken bi herrialde horietan dagoeneko hauteman den susperraldia onuragarria izango bada ere, Espainiako industriak eta, batez ere, barne eskariak erakusten duten ahultasuna oztopoa da EAEko bigarren arloarentzat.

Zerbitzuetarako, bilakaera ahula aurreikusten da eta administrazioari lotutako zerbitzuek ezin izango dute konpentsatu merkaturatzen diren zerbitzuen beherakada txikiak. Hala ere, arlo horren egonkortasunak beherakada txikia izango dela pentsarazten du. Eraikuntzak, ordea, jaitsiera garrantzitsuak jasoko ditu aztertu diren bi urteetan.

Prezioak ez dira arazoa izango datozen hiru hilekoetan eta %2aren azpitik kokatuko dira, baina aurtengo lehen erdian jasotako balioetatik zertxobait gorago. Petrolioaren merkatze prozesua amaitzen denean, inportazioen UBIak (unitateko balio indizea) igoko dira eta horrek kontsumo pribatuaren deflatoarea goraraziko du. Horren ondorioz, BPGren deflatoarea 2010ean %2ra hurbilduko dela aurreikusten da.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2009ko abuztua)

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak										
	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
AEB	-0,1	-1,1	-1,6	1,3	-0,4	2,4	2,3	2,0	1,9	2,1
Eurogunea	1,0	0,2	-0,3	0,7	0,4	1,5	1,6	1,7	1,6	1,6
Espainia	0,5	-0,7	-0,9	0,5	-0,2	1,6	2,0	1,7	1,7	1,8
EAE	0,9	0,0	-0,1	0,9	0,4	2,2	2,3	2,1	1,9	2,1

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Enpleguak behera egingo du berriro, baina erritmo leunagoan, dagoeneko Gizarte Segurantzako afiliazioak iradokitzen duenez. Dena dela, 2009an, batez beste, 34.000 lanpostu eta 2010ean beste 20.000 gehiago galduko direla aurreikusten da. Horrek langabezia tasa bi puntu goratuko ditu eta %9 gaindituko du BJA inkestaren terminoetan.

Oraingo taula makroekonomikoa osatzeko hainbat suposamendu egin dira prezioen, interes tasen, truke tasaren eta ekonomia eremu nagusien etorkizuneko bilakaeraz, aldagai horiek guztiek zuzenean edo zeharka, ingurune herrialdeekin dauden merkataritzako harremanen bitartez, EAEko ekonomian eragina dutelako.

Azken hilabeteetan, kontsumoko prezioen beheranzko doikuntza baieztatuta geratu da. Deflazioaldi luzea gertatuko den arriskua baztertuta egon arren, prezio apaleko epealdia 2010eko lehen hilabeteetara luzatuko dela estimatu da. Zehazkiago, aurreikuspen honek balio apala (%1,0) estimatu du BPGren deflatorearentzat 2009an eta zertxobait altuagoa (%1,9) 2010. urterako.


Ekonomiaren hazkundera sustatzeko hartu diren neurrien artean, Europako Banku Zentralak onartu zuen interes tasen murrizketa aipatu behar da. Eszenategi honetan, moneta politikak 2009an eta 2010ean hedakorra izaten jarraituko duela aurreikusi da, eta horrela segituko duela inflazioa maila apalean dagoen bitartean. Hain zuzen ere, epe laburreko interes tasak %1,3an kokatuko dira aurten eta %1,6ra bakarrik igoko dira 2010ean, urteko batez bestean.

Aurreikuspenean kontuan hartu den truke tasak estatubatuar ekonomia europarrarena baino lehenago irtengo dela atzeralditik estimatu du. Hori dela eta, euroa 1,36 dolarretan trukatu da 2009an eta hortik balioa 1,29 dolarretara gutxituko du 2010ean.

KPIren bilakaera

21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat, INE, Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

